

NOLA SALDU EUSKARA

ADMINISTRAZIOKO LANGILEEI



HIZNET
Sakontze-egitasmoa

Haritz Goikoetxea Aranberri
Tutorea: Iñaki Arruti

AURKIBIDEA.....	2
0. SARRERA.....	4
1. EUSKARA ETA BERE TESTUINGURUA MILURTEKO BERRIAN	5
1.1. EUSKARAREN LEGE-BABESA	5
1.2. ESTATUEN HIZKUNTZA-POLITIKAK ETA HIZKUNTZEN ORDEZKAPENA.....	7
1.3. GLOBALIZAZIOA ETA HIZKUNTZEN ARTEKO LEHIA BERRIA.....	7
1.4. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA: ORAIN ARTEKO IBILBIDEA	9
1.4.1. Euskara estrategiarik gabe edota komunikazioan hutsuneak	9
1.4.2. Euskararen normalizazioa administrazioan	10
1.5. EUSKARA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIARIK GABE	10
2. EUSKARA SUSTATZEKO KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA	12
2.1. KOMUNIKAZIO HELBURUA.....	12
2.1.1. Euskararen helburu estrategikoak.....	12
2.1.2. Euskararen helburu estrategikoen komunikaziorako gomendioak	12
2.1.3. Komunikazio helburu nagusiak	13
2.2. XEDE-TALDEA.....	13
2.2.1. Euskal herritarren sailkapena irizpide desberdinak kontuan hartuta.....	13
2.2.2. Administrazioko langileen berezitasunak	15
2.3. MOTIBATZAILEAK.....	16
2.3.1. Hizkuntza-eskakizuna edo lan hobea lortzea	19
2.3.2. Hizkuntzaren prestigioa.....	19
2.3.3. Herritarren presioa	20
2.3.4. Hizkuntza-komunitatearen izaera eta irudia.....	21
2.3.5. Euskarazko produktu erakargarriak	21
2.3.6. Euskararen antzintasuna eta haren jatorriaren inguruko misterioak.....	22
2.3.7. Desberdin izan eta sentitzeko aukera	23
2.3.8. Euskara funtzionala eta gozagarria.....	23
2.3.9. Hizkuntza-komunitate plurala eta askotarikoa	25
2.3.10. Indar ez-motibatzailea: esfortzu txikiaren legea.....	25
2.4. MEZU NAGUSIAK.....	26
2.4.1. Euskara salbatuta dago!	26
2.4.2. Erabileran dago euskararen etorkizunaren gakoa	27
2.4.3. Euskararen normalizazio prozesuak ez du atzerakorik.....	27
2.4.4. Normalizazio prozesuak lidergo sendoa du eta ondo doa.....	28
2.4.5. Hizkuntzen ekologia.....	29
2.4.6. Globalizazioa bera ere gure alde	30
2.4.7. Ahaleginak eskertu eta txalotu	31
2.4.8. Euskara exijitu	32
3. IRAGARKI BAT EGITEKO URRATSAK.....	34
3.1. MINTZA SAIOAK SALTZERA GOAZ.....	34
3.2. IRAGARKI BAT PRESTATU AURREKO LANAK	35
3.2.1. Xede-taldea.....	35
3.2.2. Helburua	36
3.2.3. Etekina edo <i>UBP</i>	36
3.2.4. Sinesgarritasun euskarriak	37
3.2.5. <i>Copy Strategy</i> -a.....	37

3.3. IRAGARKIA EGITERA GOAZ.....	38
4. ONDORIOAK	50
ERANSKINA: EUSKARAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	52
A) DATOZEN URTEETAKO HIZKUNTZA-POLITIKAREN OINARRIAK	52
☐ Etorkizuneko EH: gaitasun desberdineko euskal herritar elebidun/eleanitzez osatua.	52
☐ Diglosiazko elebitasun egonkorra behar dugu.....	52
☐ Indar mugatuak ditugu: errealistak izan eta esparruak lehenetsi.....	53
☐ Euskarak arnaguneak behar ditu	54
B) ADMINISTRAZIOAREN EGITEKOA POLITIKA BERRIAREN BAITAN.....	54
☐ Ideala langile denak elebidunak/eleanitzak izatea litzateke.....	54
☐ Administrazioko funtzioetan ere euskara-erdara konpartimentazioa.....	55
☐ Jardun-esparruak lehenetsi: egingarri eta ohikoenetatik hasi	55
☐ Asimetria administrazioaren lan-hizkuntzan.....	55
☐ Asimetria administrazioaren zerbitzu-hizkuntzan	55
BIBLIOGRAFIA	57

0. SARRERA

Sakontze-egitasmo honek bi zati nagusi ditu, bata bestearengandik oso desberdinak. Lehenengo zatiak *Euskara sustatzeko komunikazio estrategia* du izenburu eta bigarrenak *Iragarki bat egiteko urratsak*.

Horien aurretik bada beste atal bat *Euskara eta bere testuingurua milurteko berriaren hasieran* izenburua duena, eta han, euskarak gaur egun dituen lege-markoari, hizkuntza-politikari eta testuinguru orokorrari errepasoa egiteaz gain, orain arte euskararen normalizazioak berak eta bere komunikazioak izandako ibilbideak ditugu aztergai.

Euskara sustatzeko komunikazio estrategia atalean, gure ustez euskararen komunikazio estrategiak zein norabide izan beharko lukeen aztertzen dugu, beti ere administrazioaren ikuspegitik. Nahiz eta *helburuak* eta *xede-taldea* ere aipatu, *motibatzaileak* eta *mezu nagusiak* dira, batik bat, gure azterketan sakontzen ditugunak.

Administrazioan euskara jakitea hizkuntza-eskakizunekin, eta horrela lanpostua jabetzan lortzearekin oso lotuta zegoela ikusteak animatu gintuen, hain zuzen ere, sakontze-egitasmorako gai hau aukeratzera; langileen motibatzaile (ia) bakarra hizkuntza-eskakizuna ateratzea zela ikusteak alegia. Asko eta asko dira EGA atera eta gero, euskaraz sekula hitz erdirik ere egin ez duten langileak, eta hurrengo lerroetan langile horiengana nola iritsi eta euskara nola saldu jakiteko *pista* batzuk ematen saiatuko gara.

Iragarki bat egiteko urratsak atalean, berriz, nahiko modu teorikoan bada ere, iragarki bat egiteko hainbat urrats azalduko ditugu. Atal horren lanketaren abiapuntua eta ardatza *La Comunicación Activa*¹ liburua izan da. Liburu horretako ideia nagusiak jaso, laburbildu, itzuli eta gure errealitatera egokitu ditugu.

Bigarren zati horretan, iragarki bat prestatzerakoan kontuan izan beharreko hainbat alderdi azaltzen saiatzen gara. Egia da, aipatuko ditugun hainbat gauza urrun egon daitezkeela gure eguneroko iragarki ekoizpenetik, baina gure komunikazio ekintzak hobetzeko ideia batzuk jasotzeko baliagarria izan daitekeela uste dugu.

¹ "La Comunicación Activa", Marçal Moliné. Ediciones Deusto 2003.

1. EUSKARA ETA BERE TESTUINGURUA MILURTEKO BERRIAREN HASIERAN

1.1. EUSKARAREN LEGE-BABESA

Gure azterketarekin hasi aurretik, eta gaian kokatze aldera, jarraian Euskal Autonomia Erkidegoan eta bere administrazio publikoetan indarrean diren hainbat lege eta dekretu aipatuko ditugu. Horretarako, Jose Mari Arakamaren ikasgaiaren topatu ditugun azalpen zehatzez baliatuko gara:

*Eusko Jaurlaritzak arautze-lanak egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko antolaketaren arloan, jarraian aipatzen diren legeak garatuz: batetik, **10/1982 Oinarrizko Legea**, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa eta, bestetik, uztailaren 6an onartutako **Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea**.*

Lehenengoak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak alegia, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteei hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantiletan bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahitaezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua eta berau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilaren normalizazioari buruz onartutako erregelamenduzko arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko isla dira, eta bai euskal herri-administrazioetako euskararen erabilaren normalkuntza prozesuaren oinarri ere.

Arautze-lanon ondorioz ditugu hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten sistema. Hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten sistema honek bere berezitasunak ditu administrazio sektoreen arabera, hala nola:

*a) Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen eta **EAEko Herri-Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren** arauen-esparruan dagoen pertsonala: Euskal Autonomia Elkarteke Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak; Herri Kontuen Euskal Epaitegia; Lan Harremanen Kontseilua; Foru- eta toki-administrazioak eta bere erakunde autonomoak; Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak; Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileak.*

*b) **Irakaskuntza sektorea** Euskal Herriko Autonomia Elkarteke unibertsitateko kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko **2/1993 Legeak** eta irakaspostuetarako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituen **47/1993 Dekretuak** (eta ondorengo egokitzapen dekretuak) arautzen dute.*

*c) **Ertzaintzaren sektorea** Euskal Herriko Poliziari buruzko **4/1992 Legeak** eta Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duen **30/1998 Dekretuak** arautzen dute.*

*d) **Justizia Administrazioa** EAEko Justizia Administrazioaren Hizkuntza normalizaziorako neurriak arautzen dituen **117/2001 Dekretuak**. Dekretu hau suspentsio egoeran egon bada ere 2002ko ekainaren 5an jaso zuten suspentsioa. 2008an dekretu berri bat argitaratu zen, baina errekurrituta dago.*

e) **Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan** euskararen erabilera normalizatzeko neurriak **76/2003 Dekretuak** arautzen ditu.

Halaber, ezin aipatu gabe utzi abenduaren 22ko **6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena**. Lege horrek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarritzko eskubideak zerrendatzen ditu 4. artikuluan. Horien artean, f) idatz-zatian eskubide hau jasotzen da: *Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea lege honek eta ordenamendu juridikoaren gainerako legeek ezartzen dutenari jarraiki.*

Lege hori garatzeko, Eusko Jaurlaritzak **123/2008 Dekretua**, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, argitaratu zuen.

Hortaz, modu orokor batean bada ere, honela laburbildu genitzake EAEko lege-markoaren oinarri nagusiak:

- Herritarrei hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie eta herri-erakundeei betebeharrak herritarrei aitortutako eskubide horiek bete daitezken.
- Progresibotasuna eskubide eta betebeharrak betetzerakoan.
- Helburua euskararen erabilera normalizatzea da, hau da, euskara gizarteko eginbide guztietan normaltasunez erabiltzeko aukera izatea, eta gizarte elebiduna eraikitzea.

Desberdina da Nafarroan, Iparraldean eta EAEn euskarak duen lege-babesa; administrazio-lurralde horietako bakoitzean izan den hizkuntza-politikarekin batera, lege-babes horren arabera izan da lurralde bakoitzean euskarak izan duen bilakaera eta lortu dituen emaitzak. Ez da harritzekoa, beraz, EAE izatea gehien aurreratu duena euskaldun kopuruan, batetik, eta euskaraz egin daitezkeen funtzio komunikatiboetan, bestetik; hortaz, handitu egin dira nabarmen euskaraz bizitzeko aukerak EAEn.

Egia da, EAEn ere egindakoa baino askoz gehiago dela oraindik egiteko dagoena, baina hutsuneak hutsune, garrantzitsuak izan dira azken 25 urteetan euskararen normalizazio prozesuan eman diren aurrerapausoak; hor ditugu, besteak beste, hezkuntza-sistema, euskarazko hedabideak, administrazioko langile askok hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen izana...

Jende askok ez du uste, halere, EAEn bertan ere lege-babes hori nahikoa denik eta ditugun indarrak babes handiagoa lortzera bideratu beharko genituzkeela uste du.

Baina, batzuek indarrean den legea nahikoa ez dela aipatzen duten bitartean, Fishmanentzat, adibidez, ez dago lege-markoan edo bere aldaketan normalizazioaren gakoa, berak behintzat ez du asko espero aitormen juridiko hutsetik.

Halaber, *Euskara 21*eko oinarritzko txostenean ere legearen gaineko honako hausnarketa hau irakur genezakeen: *Ba al da gaurko euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek trabatzen dutelako bertan behera erortzen denik? (...) Egia da, indarrean dagoen legeriaren garapen-aukera guztiak ez direla agortu oraindik. Gaurko legeriaren eremuan ere bada, beraz, oraindik ibili gabeko tarterik.*

Hortaz, lege-babesa handitzea lagungarria izan badaiteke ere, batzuek ez dugu uste euskararen normalizaziorako hain erabakigarria denik; Europan Irlandako kasua dugu horren erakusgarri.

Duen garrantzia ukatu gabe, gure eskumenetik oso urrun dagoen gaia da legedi-aldaketarena, eta hori izango da sakontze-egitasmoan puntu horretan gehiago ez sakontzeko arrazoia.

1.2. ESTATUEN HIZKUNTZA-POLITIKAK ETA GUTXITUTAKO HIZKUNTZEN ORDEZKAPENA

Euskarak lege-babes zabala duen lurraldeetan ere, ez dira oraindik desagertu bere garapena oztopatzen duten eragileak; betiko eragile berberak direla ere gaineratu beharko genuke. Intentsitate desberdinetan baina ez da inoiz gelditu euskarak historian zehar jasan behar izan duen errepresio linguistikoa (Joan Mari Torrealdaien *El libro Negro del Euskera*² edo Xamarren *Euskara Jendea*³ liburuak irakurtzea besterik ez dago horretaz ohartzeko). Euskaldunok bizi dugun zapalkuntzari ezin zaio beste modu batean deitu: errepresio linguistikoa.

Zoritarrez, euskarak ez ditu espainiar eta frantziar Estatuak inoiz lagun izan; *Egunkaria* ixtea edo Nafarroan nahiz Iparraldean ikastolek etengabe jasan behar izaten dituzten zailtasunak beste ehunka adibideren artean bi adibide gehiago baino ez dira. Ez dugu ezagutzen gobernu batek edo besteak euskara sustengatzeko martxan jarri edo lagundu duen plangintza, komunikazio kanpaina edo bestelako ekimenik.

Lionel Jolyk oso ondo azaltzen duen bezala, lurralde batean bi hizkuntza edo gehiago daudenean bertako gobernuak bi aukera ditu: eleaniztasun egoera hori kudeatzea edo hizkuntza bat lehenetsiz beste hizkuntza(k) ordezkatu nahi izatea.

Bigarren aukera *laisser-faire* da, hau da, dena dagoen bezala uztea. *Laisser-faire*, kontrakoa badirudi ere, benetako politika da, kontserbadorea, hizkuntza indartsuei beraien indarra garatzen utziz gutxitutako hizkuntzen kontra egiten duena. Neurri batean Nafarroan eta Iparraldean indarrean dagoen hizkuntza-politika da hori.

Laisser-faire politikak gutxitutako hizkuntza ordezkatzeko, desagertzea, ekarriko luke ziurrenik. Horren aurrean, bada hizkuntza hori desagertzea *heriotza naturala* izan dela defendatuko duenik. Horixe da, hain zuzen ere, hizkuntzak desagertzea justifikatzeko batzuek erabiltzen duten argudioa: normala hizkuntzak jaiotzea, garatzea eta hiltzea dela, bizidunak bezalaxe. Andoni Barreñak aipatzen duenez, ez da hori hizkuntzen berezko joera, eraldatzea eta garatzea baizik; latinak izan dituen *ondorengoei* begiratu besterik ez dago horretaz konturatzeko.

Halaber, eta mendebaldeko gizartean barneratuta dugunaren kontra, normala dena eleaniztasuna dela esan behar dugu eta ez elebakartasuna; hala uste du Chomskyk *una sociedad es monolingüe cuando su lengua es homicida* dioenean. Hizkuntza baten ordezkapenaren atzean arrazoi politiko edo sozio-ekonomikoak egon ohi dira, eta beraz, ez genuke normaltzat eta naturaltzat hartu behar gutxitutako hizkuntzen aurka ondo pentsatutako eta gauzatutako politika bat dena.

Ondorioz, orain arte espainiar eta frantziar Estatuak izan duten hizkuntza-politika eta darabiltzaten diskurtsoak ikusita, tamalez, ez dugu uste estatu horiengan gutxieneko konfiantza izateko arrazoi askorik dugunik.

1.3. GLOBALIZAZIOA ETA HIZKUNTZEN ARTEKO LEHIA BERRIA

Estatuen boterea handia izanda ere, ezin dugu ahaztu *herrixka globalean* bizi garela gaur egun, eta joko-zelai berri horretan jokatu behar duela euskarak bere partida.

Globalizazioa zer den ulertzeko Patxi Juaristiri lapurtu diogu azalpena: *Teknologia berrien laguntzarekin distantzia fisikoak desagerrarazten joan dira, eta munduko edozein*

² "El Libro Negro del Euskera", Joan Mari Torrealdai. Ttartalo 2000.

³ "Euskara Jendea", Xamar. Pamiela 2006.

zonaldean gertatzen denak eragin zuzena eta berehalakoa izan dezake geure eguneroko bizitzan.

Globalizazioaren eraginez, gure eguneroko bizimodua, pentsaera, balioak... abiadura izugarrian ari dira aldatzen. Maila ekonomiko, politiko, kultural eta sozialean ari da gertatzen berrantolaketa eta, nola ez, hizkuntzengan ere nabari da eragin hori.

Mendez mende eta duela gutxi arte, gure arbasoen mundua beraien herri eta inguruko auzo eta herrietara mugatzen zen, eta mundu itxi horretan bizitzeko aski zen euskara jakitea. Azken bi belaunaldietan, berriz, globalizazioak distantzia fisikoak txikiagotzea ekarri du eta, ondorioz, urruneko lurralde eta hizkuntzak ezagutzeko aukera izan dugu. Bi belaunaldi nahikoa izan dira euskaldunok munduaz genuen ikuskera erabat zabaldu eta aldatzeko. Hori bera primeran islatzen du Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*⁴ eleberriko pasarte honek: *Obaba bezalako leku ez printzipaletan behintzat gutxiago aldatu ziren gauzak Jesusen jaiotzatik telebista azaldu arte –bi mila urteetan– telebistaz gero berrogeita hamarretan baino.*

Zalantzarik gabe, hizkuntzengan eragin nabarmena du globalizazioak, eta aurrerantzean oreka berri bat bilatu beharko dute. Halere, etorkizunean globalizazioak hizkuntzengan izango duen eraginaren aurrean adituak ez dira ados jartzen eta bi diskurtso kontrajarri topa ditzakegu: azken mendeetan gutxitutako hizkuntzek izan duten desagertze-erritmoa bizkortuko dela diotenena eta, alderantziz, globalizazioa gutxitutako hizkuntzentzat ona izango dela diotenena.

Globalizazioa gutxitutako hizkuntzentzat ona ala txarra izango den igarkizunetan hasi beharrean, abiapuntutzat globalizazioa atzera bueltarik ez duen prozesua dela onartu, eta horren aurrean izan beharreko komunikazio estrategiaren gainean sakonduko dugu aurrerago.

Edonola ere, kontuan izan behar dugu gaztelania eta frantsesaz gain orain *lehiakide* berriak dituela euskarak. Globalizazioaren ondorioz, teknologia eta ikus-entzunezko komunikabide berrien zabalkundea gertatu da, bereziki interneten zabalkundea, eta horiek nagusiki herrialde aberatsen eskuetan daudenez, herrialde horien hizkuntzak gure etxeetan sartzen zaizkigu ia etengabe. Horrela, gaztelania eta frantsesaz gain ingelesa, alemana, txinera... bezalako hizkuntza indartsuak ditu euskarak *lehian*.

Dentsitate handiko hizkuntzak dira horiek denak Fermin Etxegoienek *Neurona eta zeurona*⁵ liburuan azaltzen duenez; hiztun kantitate erraldoiak dituzte, eta horrela, mezu bat hizkuntza horietako batean iristen zaigunean bere oinarrian hiztun kopuru erraldoia dago. Ondorioz, edukia edozein dela ere, erdal mezu bat erakargarria izango da guretzat. Bere ustez, mezuaren edukia baino hizkuntza da erakartzen gaituena, dentsitatea baita.

Etxegoienek aipatzen duen beste puntu bat hizkuntzen dentsitate kontzeptuala da. Hizkuntza batek dentsitate kontzeptual handia duela esaten dugu kontzeptu nahiz azpikontzeptu bakoitzerako hitz bana, gutxienez, baldin badu, hau da, gai baldin bada hitz gutxiarekin errealitatearen ñabardura asko azaltzeko. Horretarako jende asko aritu behar da hizkuntza hori erabiltzen eta lantzen, eta goian aipaturiko hizkuntzek milioika lagunez osatutako hizkuntza-komunitateak dituztenez, dentsitate kontzeptual handia erdietsi dute.

Euskaraz, berriz, ñabardura, kontzeptu eta azpikontzeptu batzuk adierazteko hitzik ez dugu eta ez gara sortzeko gauza izan, edo egon badaude baina ez ditugu ezagutzen. Hainbat alor euskaraz lantzen hasiberriak garela izan daiteke horren arrazoietakoa bat (ez da hainbeste denbora euskara baserri girotik mundu urbanora ailegatu zela). Hortaz, dentsitate kontzeptuala handitzeko behar-beharrezkoa izango da euskara gero eta gehiago eta gero eta jardun-esparru gehiagotan erabiltzea eta lantzea.

⁴ "Soinujolearen semea", Bernardo Atxaga. Pamiela 2003, 65.or.

⁵ "Neurona eta zeurona", Fermin Etxegoien. Pamiela 2004.

Bukatzeko, euskarak aurka duen beste faktore bat erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz egotea da; adibidez, gazteen intereseko gaitan (musika, kirola, moda...) erreferentzia gehienak erdaraz daude eta esamolde, terminologia eta lokuzio eguneratuak falta zaizkigu euskaraz.

1.4. EUSKARAREN NORMALIZAZIOA: ORAIN ARTEKO IBILBIDEA

1.4.1. Euskara estrategiarik gabe edota komunikazioan hutsuneak

Haize onik ez dago nora joan nahi duen ez dakienarentzat

Azken 25-30 urteetako ibilbideari erreparatuz gero, euskarak oinarritzko arazo bat izan duela ondorioztatu dezakegu: komunikazio helburuetan eta estrategietan gabeziak larriak izanda ere, kezkagarriagoa izan da euskarak berak izan dituen helburu eta estrategia gabeziak.

Norbait zein da euskararen misioa? Eta ba al du helburu estrategikorik? Zein da hoge edo berrogeita hamar urte barrurako desio dugun euskararen egoera? Eta ondo al goaz norabide horretan?... moduko galderekin hurbildu izan zaigunean ez gara erantzuteko gauza izan, euskalgintzan dihardugunak ere ez.

Duela sei urteko hitzaldi batean⁶, Jon Sarasuak, diagnostiko eta estrategia gabezia horiek kritikatu zituen: *Zein dira euskara bezalako ekosistema baten minimo bitalak? Minimo bital horietatik gora gaude edo behera gaude? Hau da, euskararena zer da, gripe bat edo minbizia? Eta nola artikulatu lur berean bizi diren hizkuntza-komunitate desberdinen arteko jokoa? Badaukagu diagnostiko bat, diagnostiko minimamente zientifikoa, nola gauden, nora goazen, zein den momentu honetan euskararen egoera eta irtenbidea? Nik uste dut ezetz. Baditugu iritzi politikoak, baina iritzi politikoak ez dira momentu honetan oso serioak.*

Hitzaldi horretatik sei urte pasatu badira ere, diagnostiko eta estrategia hutsune berberekin jarraitu dute bai euskarak bai euskalgintzak. Sentsazioa dugu euskarak ez duela inoiz izan ez misio, ez bisio, ez helburu estrategikorik, edo izan baditu ez direla behar bezala komunikatu. Euskalgintzan gabilitzanok modu lausoan ezagutu baditugu, ze espero genezakeen herritar xumearengandik?

Egia da bai, azken 25-30 urteetan hainbat eta hainbat arlotan aurreratu duela euskarak eta itsu egon beharko ginateke hori ez ikusteko: milaka euskal hiztun gehiago ditugu eta euskara ikasi nahi duenak 139 euskaltegi osatutako sarea dauka eskura EAEn, guraso gehienek D ereduak aukeratzen dute beraien seme-alabentzat, inoiz baino euskarazko hedabide gehiago ditugu eta administrazioan ere bere lekutxoak egin du euskarak... Aurrerantz goazela bai, baina norantz goazen ba al dakigu?

Normalizazio prozesua gidari eta erreferente faltan izan da, eta oraindik ere hala dela dirudi; ondorioz, noraezean gabilitza denok. Dagoeneko 25 urte luze pasatu dira Euskararen Legea onartu zenetik, eta oraindik euskaraz bizitzeko egunero makina bat oztopo eta egoera ezeroso jasan behar dituen euskaltzalearengan nekea eta etsipena nabari dira; hizkuntza-eskakizuna atera eta euskaraz inoiz hitz erdirik egiteko aukerarik izan ez duen administrazioa langilearentzat, berriz, ulertezina da egoera.

Euskararen balizko misioa funtzioen *konpartimentazioa* baldin bada, hori herritarrek jakin egin beharko luke. Adibidez, herritar euskaltzale batek aspirina kaxa ireki eta argibideak gaztelaniaz bakarrik daudela ikusitakoan pentsa dezake *hau ere gaztelaniaz bai baina euskaraz ez, bi hizkuntzak ofizialak badira noiz iritsiko da euskara gaztelaniaren parera?*

⁶ http://www.erabili.com/zer_berri/galdezka/1082164520

Noiz egongo da gaztelaniaz dagoen den-dena euskaraz ere? Euskarak nahi du baina ezin du, hori da euskaltzale askok pentsatu eta sentitu izan duguna, eta horrek etsipena dakar.

Aldiz, helburua funtzioen *konpartimentazioa* baldin bada, eta herritar euskaltzaleak hori jakingo balu, ulertuko luke agian aspirina kaxako argibideak ez dutela zertan euskaraz ere egon behar, eta horren ordeaz lehenetsi dela herriko komertzioetan errotulu guztiak euskara hutsez egotea, eskolatik bidalitako gutunak bezalaxe.

Norantz goazen jakiteak, egiten den guztiak zentzu eta norabide bat duela ikusteak, lasaitu egingo luke, gure ustez, herritarra.

1.4.2. Euskararen normalizazioa administrazioan

Euskarak administrazioan bizi duen errealitatea azaltzeko, administrazioa barrutik oso ondo ezagutzen duen Mikel Zalbidek egindako diagnostikoa erabiliko dugu hitzez hitz, administrazioak bizi dituen ajeak primeran azaltzen baititu Zalbidek:

Erdaraz funtzionatzen duen administrazioa dugu EAEkoa, hamarretik bederatzietan. Hori da oinarri-oinarrizko egia (...). Mende-laurdenean milaka lanpostu sortu dira; hainbat lanposturi euskarazko hizkuntza-eskakizuna erantsi zaio legez, une batetik aurrera. Saio ohargarriak egin eta egiten dira, azkenik, beratako langileak euskalduntzeko edota, oro har, euskaraz lan egin ahal izan dezaten prestatzeko. Administrazioko lanpostuen %90ek edo gehiagok erdaraz funtzionatzen du ordea: beti edo nagusiki erdaraz, hitzez eta, bereziki, idatziz (...). Zergatik gertatzen da euskararen desagertze hori? Demagun zenbait hipotesi xume:

a) Agintarien hizkuntzaz baliatzen direlako funtzionarioak eta agintariek, oro har, erdaraz dihardutelako;

b) Funtzionario gehienak erdaldun elebakarrak edo erdal-elebidunak direlako hainbat administrazio-ataletan;

c) Administrazio-hizkuntza estandarizatu gabe dagoelako euskaraz. Estandarizatzea bere jatorrizko adiera zabalean ematen da hemen: kodea sortu eta finkaturik izatea; hartaz baliatuko den xede-multzoak gogoko izatea, ikasia izatea eta “de facto” erabiltzea;

d) Euskaraz datorren herritarrek erdaraz ere badakielako euskaraz bezain ondo (hobeto ez bada), eta euskaltzale militantea ez baldin bada gero eta errazago konformatzen delako erdaraz egiten dion zerbitzari publikoarekin; eta

e) Aurreko faktore horien konbinazioa.

Zalbideren diagnostikoa osatze aldera, gehi dezagun EAEko Administrazio Orokorreko lanpostuen %44an dela baldintza euskaraz jakitea, maila batean bederen, eta gainerako %56an baloratu egiten dela. Horrela, Osakidetza, hezkuntza-sistema eta Ertzaintza alde batera utzita, 12.000 langilek egiaztatu dute, dagoeneko, hizkuntza-eskakizuna.

Euskara maila egiaztatzetik erabilerara dagoen etenak, berriz, ondorio negatiboak ditu euskaldunarengan; batetik, erabili ezean gaitasuna txikitu egiten delako, eta bestetik, esfortzuz ikasitakoak balio ez diela ikustean euskararekiko duten atxikimendua gutxitzen zaielako.

1.5. EUSKARA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIARIK GABE

Komunikazioaren eta informazioaren garaian bizi izanda, euskarak eta euskalgintzak ezin dute jarraitu komunikazioari bizkarra ematen. Herritarrei iritsi, iristen zaizkie euskararen gaineko mezuak; komunikazioa egon, badago, baina komunikazio helburu eta estrategia eraginkor, erakargarri eta bateraturik ez.

Euskararen eta euskalgintzaren gainean darabiltzagun diskurtsoak zaharkituta geratu zaizkigu, betiko leloak erabiltzen jarraitzen dugu eta dagoeneko ez digute balio; erdaldun askok ez du euskara ikasteko ez jarrera ez asmorik, euskaldun askok erdaraz bizitzen jarraitzen du eta euskaltzale askorengan nekea nabari da. Diskurtsoen itxura aldatu baino diskurtso berriak behar ditugu; aldaketa sakonen premia dugu.

Halere, badirudi, enpresa eta bestelako erakundeak bezala, euskalgintza ere ohartu dela komunikazioaren garrantziaz. Iñigo Fernandezek dioen bezala, *jabetu, jabetu gara dugun hutsuneaz, eta hasiak gara erremedioa jartzeko lanak hartzen. Ikusi besterik ez dago euskalgintzaren munduan nola ugaltu diren azken urteotan logotipo, lelo eta mota guztietako kanpainak. Hala ere, amateurismotik profesionalizaziorako bidean da oraindik euskalgintza komunikazioari dagokionez, eta gure artean ez da eraginkortasun handirik nabari eremu horretan, salbuespenak salbuespen. Kontua ez baita gauzak egitea, behar bezala egitea baizik.*

Iñigo Fernandezek berak, duela hiru bat urte, *Euskara sustatzeko sloganak*⁷ izenburudun artikulua bat argitaratu zuen *Euskara eta Publizitatea*⁸ bere blogean. Artikuluan, 2005ean euskara sustatzeko erabili ziren hainbat slogan jasotzeaz gain, hausnarketarako galdera hau luzatzen zuen: *Zer gertatuko litzateke automobil kontzesionario bakoitzak lelo bat sortu eta zabalduko balu saltzeko daukan auto mota bakoitzarentzat?!...*

Sakontze-egitasmoa administrazioko langileei zuzendutako komunikazio estrategian oinarritzen denez, jarraian, eta beste slogan askoren artean, Eusko Jaurlaritzan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietan eta gure lan-esparrua den Justizia Administrazioan erabilitako hainbat logo eta slogan jaso ditugu. Kontzesionarioko autoen kasuan bezala, hemen ere ez litzaguke gaizki etorriko darabilgun logo-dantza horrek ze eraginkortasun izan duen aztertu eta ondorioak aterako bagenu.

EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK



JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA



⁷ <http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/archives/2006/04/P2.html>

⁸ <http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/index.php>

2. EUSKARA SUSTATZEKO KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA

2.1. KOMUNIKAZIO HELBURUA

2.1.1. Euskararen helburu estrategikoak

Arestian aipatu dugu herritarra galduta dabilela, noraezean, eta ez daki ez nora goazen ez ondo al goazen. Edozein komunikazio estrategia definitzen hasi baino lehenago horiek argitu beharko genituzke; batetik, zein diren helburuak eta, bestetik, helburu horiek lortzeko bidean zein puntutan gauden.

Helburuen gainean galdetzen hasita, batzuek Euskal Herri elebakarra nahiko lukete (deigarria da erdaldun elebakarra nahiko luketenak gero eta ozenago mintzatzea), beste batzuek gizarte elebiduna dute amets... Zenbat buru hainbat aburu.

Hutsune horiek bete eta helburuak bateratu nahian edo, orain gutxi arte, euskararen helburu eta estrategiak definitzeko egitasmo parte-hartzaile bat egon da martxan EAEn: *Euskara 21*⁹.

XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak zehazteko jarri zuen Eusko Jaurlaritzak 2008an *Euskara 21* izeneko egitasmo hori abian. Urte horretako apirilean batzorde batek *oinarrizko txostena*¹⁰ aurkeztu ostean, hainbat eragileren ekarpenak jaso eta dokumentu berri bat aurkeztu zen 2009ko urtarril bukaeran¹¹.

Azken txostenak euskararen misioa eta bisioa esplizituki aipatzen ez baditu ere, bai aipatzen ditu epe ertain-luzera begira euskarak izango dituen helburu orokor, lan-ildo eta politikak.

*Euskara 21*en zehazturiko hizkuntza-politika, lege-markoa eta hainbat soziolinguistika iturritatik jasotakoa kontuan hartuta, hauek izan daitezke, gure ustez, datozen urteetan denok partekatze moduko hizkuntza-politikaren hiruzpalau *titular* (eranskinean gehiago sakondu dugu bakoitza):

- Euskal Herria gaitasun desberdineko herritar elebidun/eleanitzez egongo da osatuta.
- Diglosiazko elebitasun egonkorra behar dugu.
- Indar mugatuak ditugu, hortaz, errealistak izan eta jardun-esparruak lehenetsi.
- Euskarak arnasmuneak behar ditu euskaldunok euskaldunokin jarduteko.

2.1.2. Euskararen helburu estrategikoen komunikaziorako gomendioak

Komunikazio oro helburu estrategiko horiekin koherentzia eta horiek indartzeko

Gure ustez, goian aipatutako euskararen helburu orokorrak eragile askoren parte-hartzearekin adostutakoak direnez, denok, baita euskalgintzan dihardugun denok ere, bat egin beharko genuke helburu horiekin.

Baliteke *Euskara 21* egitasmoaren emaitzek ez asetzea euskaltzaleon espektatibak, eta baliteke, baita ere, euskara gehiegi *maite* ez dutenentzat helburu potoloegiak izatea (eta horrekin ez dugu esan nahi erdibidea ona denik, e!), baina gustatu ala ez, eztabaida eta prozesu luze baten emaitza diren helburu orokor horiek onartzea komeni zaigu denoi, gure hobe beharrez.

⁹ http://blog.euskara21.euskadi.net/?lang_pref=eu

¹⁰ http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Oinarrizko_Txostena.pdf

¹¹ <http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Itun%20berritu%20baterantz.pdf>

Are gehiago, gure ustez, ez genituzke inolaz ere publikoki azaldu behar helburu horiekiko desadostasunak. Herritarrari mezu gehiegi iristen zaizkio eta, lehen esan bezala, noraezean dabil; beraz, egiten dugun eta komunikatzen dugun oro helburu orokor horiekin koherentzia egotea komeni zaigu eta helburu orokor horiek indartzeko balio beharko du. Beste norabide batean emandako mezuak mesede baino kalte gehiago egin diezaguke, euskararen aldeko aldarrikapen sutsuena bada ere.

Komunikatzerakoan hartzailearen lekuan jarri eta ez pentsatu berarentzat dena ezaguna denik

Euskararen helburu orokorren komunikazioan kontuan izan beharko genuke herritar askok kontu hauetaz duen ezagutza komunikabideek *distorsionaturiko* pare bat berritara mugatzen dela, eta bere ezagutza ia hutsaren parekoa dela.

Horrela, lehenago aipaturiko helburu horietako batzuk aipatzea, hain-hain zentzuzkoak izanda soberan egon daitekeela pentsatu badezakegu ere, hizkuntzen *gatazka* ezagutu ez edo bere eguneroko kezka nagusi ez duenari komunikatu egin beharko genizkioke. Adibidez, elebakartasuna baino elebitasuna/eleaniztasuna hobea dela uste badugu, zergatik ez nahi beste aldiz errepikatu? Mamuak uxatzeko, besterik ez bada.

2.1.3. Komunikazio helburu nagusiak

Bi dira, Iñigo Fernandezek ustez, komunikazioak euskararen normalizazioari egin diezazkiokeen ekarpenak:

1. *Jendea euskarara erakartzea (euskaldundu dadin, seme-alabak euskaldundu ditzan edo euskararen aldeko ekintza positiboak onartu edo bultzatu ditzan).*
2. *Euskaraz dakitenak euskaraz bizi daitezen lortzea (euskaraz ikasten ari diren horiek euskara ahalik eta hobekien eta gehien erabil dezaten bilatzea).*

Bi komunikazio helburu nagusi horiek baliagarriak zaizkigu administrazioko langileengana zuzentzen garenean ere.

Halaber, kontuan izan behar dugu bi komunikazio helburu nagusi horien azpian komunikazio helburu zehatzagoak egongo direla. Horrela, komunikazio edo iragarki batekin lortu nahi dugun helburua zenbat eta gehiago zehaztu, orduan eta estrategia eraginkorragoa definitu ahal izango dugu.

2.2. XEDE-TALDEA

2.2.1. Euskal herritarren sailkapena irizpide desberdinak kontuan hartuta

Euskal gizartea plurala da, eta modu askotan sailka ditzakegu herritarrak; sailkatzeko irizpide bakartzat hizkuntza hartuta ere, hainbat sailkapen egin genitzake: jarreraren arabera, erabileraren arabera, ezagutzaren arabera, lehen hizkuntzaren arabera... Jarraian horietako batzuk jaso ditugu:

Sailkapena irizpidetzat euskararekiko jarrera hartuta

Bernardo Atxagak 1999ko azaroan Donostian eman zuen hitzaldi batean¹² euskal herritarrak hiru taldetan sailkatu zituen:

- **Patetikoak:** euskaldunak izanik euskaraz bizi nahi dutenak eta, euren buruarekin kontraesan izugarrian, aukera hori kontzienteki egiten dutenak euren burua behartuz (militanteak ere deituak).

¹² <http://www.basqueliterature.com/fr/basque/historia/hogeimende/sarrera>

- **Sinpatikoak:** euskal mundua maite eta itxuraz errespetatzen dutenak, baina inongo behar eta obligaziorik sentitzen ez dutenak euskaraz bizi eta sentitzeko.
- **Antipatikoak:** euskara desagertuko balitz lasaitu ederra hartuko luketenak.

Sailkapena irizpidetzat euskararen ezagutza hartuta

Euskararen ezagutza oinarri hartuta honako sailkapen hau izango genuke:

- **Euskaldunak:** euskaraz dakitenak, hau da, euskaraz hitz egiteko eta euskara ulertzeko arazorik ez dutenak.
- **la euskaldunak:** euskaraz nekez edo gaizki hitz egiten dutenak, eta ulertu ondo edo nekez egiten dutenak.
- **Erdaldunak:** euskaraz hitz egiten ez dakitenak eta batere ulertzen ez dutenak edo gaizki ulertzen dutenak.

Sailkapena irizpidetzat euskararen erabilera hartuta

Euskal herritarrek jarreraren eta ezagutzaren arabera sailkatu ditugun bezala, erabileraren arabera ere sailka genitzake:

- **Euskal hiztunak** dira euskara erabiltzen dutenak. Gabriel Arestik *euskaldun* hitza euskararen erabilerarekin lotzen zuen: *Euskaldun es el que habla vascuence, o mejor dicho es aquella persona que tiene el vascuence como vehículo principal de su expresión humana*. Hortaz, Arestiren iritziz, euskaldun izateko euskara edukitzeaz gain (euskaradun), beharrezkoa izango litzateke euskaraz bizitzea.
- **Euskaldun utziak** dira euskaraz jakin bai, baina erabiltzeko aukera dutenean erabiltzen ez dutenak. Arrazoiak asko izan daitezke: gaitasun falta, euskal identitatea euskara ezagutzearekin lotzen dutenak (euskaldun izateko ez dute erabiltzea beharrezko ikusten), gaztelania gustukoago dutenak... Jarreraren araberrako sailkapenarekin uztartuz, euskaldun utzien artean gehienak *sinpatikoak* izango lirateke eta neurri txikiagoan *antipatikoak* (azken horiek izango lirateke, adibidez, gaztelania ez ezagutzeagatik lotsa sentitu eta euskara gorrotatzera iritsi diren euskaldunak).
- **Erdaldunak** euskaraz ez dakitenak dira eta, beraz, erabiltzen ez dutenak. Gure ustez, euskaldun utzien multzoan bezala, hemen ere *antipatikoak* baino gehiago dira *sinpatikoak*, nahiz eta aurreko multzoan baino proportzio txikiagoan nagusitu.

Euskara 21: "euskalduna" definitzeko modu berria

Gure ustez, euskararen erabileraren edo ezagutzaren irizpidetik baino euskararekiko jarreraren irizpidetik gertuago dago *Euskara 21* egitasmoan ematen den euskaldunen definizioa:

- **Euskalduna:** *Euskarara hurbildu den oro hartu behar dugu euskalduntzat, nahiz eta hurbiltze horretan maila pasiboraino baino iritsi ez.*

Eta jarraian irizpide hori zergatik hartu den argitzen da: *Garbi dago "euskaldun pasibo" horrek euskal hiztunen elkarteari egiten dion ekarria mugatua dela, baina, mugak eta guzti, bizikidetzaren balio erantsia dakarkio euskal hiztunen elkarteari, eta, bere xumean, balio sinboliko eta operatibo ikaragarria duen ekarria da hori, bidea zabaltzen baitio elkarte horren hazkunderi.*

Hortaz, eta *euskarara hurbiltzearen* irizpide berri horren arabera, euskalduna izango litzateke euskara normaltasunez erabiltzen duen nahiz euskararen aldeko jarrera duen edonor. Beste modu batean esanda, euskaldunak izango ginateke, batetik, euskaraz bizi garenak, eta bestetik, euskaraz bizi garenoi euskaraz bizitzen laguntzen digutenak, edo oztoporik jartzen ez digutenak, behinik behin.

Definizioa anbigua denez, pertsona beste interpretazio egon litezke; baina, halere, euskara ulertzeko maila eskuratu dutenak edo gutxieneko ulermen maila eskuratu ez arren, euskararen normalizazioari bere bidea egiten laguntzen edo uzten diotenak euskaldunon multzoan sartuko genituzke. Adibide bat jartzearen, administrazio-atal batean euskaraz lan egiteko erabakia hartu dute eta horrek berrantolaketa berria ekarri du atal horretara; erabakia modu onean onartu edota bultzatu duen edonor euskalduntzat hartu beharko genuke definizio horren arabera.

Komunikazioari dagokionez, *Euskara 21*en aipatzen denez, urte askoan erabili ditugun *ia euskaldun* bezalako kontzeptuak betiko baztertu beharko genituzke, trebetasun handiagoko eta txikiagoko euskaldunak baitaude, beste edozein hizkuntzatan bezala. Beste horrenbeste esan beharko genuke *patetiko*, *sinpatiko*, *euskaldun utzi*... bezalako kontzeptuez, euskara ogibide dugunontzat baliagarri diren kontzeptuak badira ere, ez genituzke inolaz ere gure lan-esparrutik kanpo edo komunikazio kontuetan erabili behar.

2.2.2. Administrazioko langileen berezitasunak

Arestian ikusi dugu euskararen normalizazioa lortzeko helburu orokor batzuk daudela zehaztuta, eta horiek lortzeko administrazioak bere helburu propioak dituela (eranskinean ditugu horiek jasota).

Halaber, aurreko puntuan aipatu dugu euskal herritarren *unibertsoan* era guztietako euskal herritar tipologiak daudela. Eta orain jakin beharko genukeena da ea administrazioak tipologia propioak dituen, hau da, euskararen ezagutza, erabilera eta motibazioari dagokionez oso desberdina den administrazioko langilea beste euskal herritarrekin alderatuta.

EAEko administrazioa, transferitutako administrazioa behinik behin, euskal herritarrez osatuta dago nagusiki eta hortaz, euskal gizartearen isla dela esan genezake (ez dugu buruan, adibidez, Guardia Zibilak EAEn izan dezakeen kuartel bat). Horrela, euskal gizartean bezala, administrazioan ere euskaldun *patetikoak*, *sinpatikoak*... edo *euskaldun utziak*, *ia euskaldunak*... topatuko ditugu.

Halere, xehetasun gehiagoz begiratzen hasita, administrazioko langileak baditu gainerako euskal herritarrengandik bereizten duten hainbat ezaugarri; horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian:

Gizartean baino euskara ezagutza handiagoa

Gizartean baino ahalegin handiagoa egin da administrazioko langileen euskara ezagutza handitzeko. Kontuan izan behar da administrazio askotan eduki dutela langileek egun osoko edo bi orduko liberazioak hartzeko aukera eta, gainera, matrikulaz gain soldatak berdin-berdin kobratu dituztela langile horiek.

Hizkuntza-eskakizunak ezartzeko politikak langileen motibazioan eta erabileran izan dituen emaitzak baloratzen sartu gabe, ezagutzak gora egiteko, behintzat, balio izan du. Euskara jakitea betebeharra ala meritua izan, asko izan dira hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileak; ondorioz, administrazioa euskal gizartea baino maila bat gorago dago euskararen ezagutzari dagokionean.

Gizartean baino “antipatiko” gehiago

Hizkuntza-eskakizunen politikak ere badu bere ifrentzua, betebehar edo meritua bilakatzearekin gizartean baino *antipatiko* gehiago irabazi baititu euskarak administrazioan.

Ondorio berbera ateratzen dugu *Euskara 21*eko oinarritzko txostenean jasota dagoen balorazioa irakurrita: *Politika horrek desadostasunak sortu ditu zenbaitetan, batez ere herritarren hizkuntza-eskubidearen babesak bidean erdiz erdi jo duenean langileak lehendik irabazia zuen lan eskubidea. Egia da, gero, praktikan, salbuespen asko egin*

direla, adina dela eta, lanpostu mota dela eta, eta abar. Eta egia da, nahiz jendea honetaz konturatzen ez den, inork ere ez duela bere lanpostua galdu arrazoi horrengatik. Besterik da, eta hori ere hala gertatu da, lanpostua bereganatzeko lehian aurrea hartu diola askotan euskaraz mintzatzeko gai dela frogatu izan duenak.

Justifikatuta egon ala ez, ziurrenik gizartean baino *antipatiko* gehiago topatuko ditugu administrazio langileen artean.

Instituzioaren eta kokatuta dagoen ingurunearen artean desoreka soziolinguistikoa

Goian aipatu dugu administrazioa euskal gizartearen isla dela neurri handi batean eta horrela, Gernikako Udaleko langileen euskara ezagutza, esaterako, Gernikako herritarren oso antzerakoa izango da.

Baina nazio mailako administrazioetan batik bat, eta langileen leku-aldatze sistemarengatik neurri handi batean, askotan instituzioa eta kokatuta dagoen herriaren artean soziolinguistikoki desoreka izaten da. Horrela, Gasteizen kokatuta dagoen Eusko Jaurlaritzako langileen euskara ezagutza gasteiztarrena baino handiagoa da, edo Azpeitiko Justizia Jauregiko langileen euskara ezagutza azpeitiarrena baino askoz baxuagoa da.




Egia da estatu mailako administrazioetan leku-aldatze sistemaren ondorioak larriagoak direla (lehen aipaturiko Guardia Zibilaren kasuan langile ia denak ez dira EAEkoak), baina transferitutako administrazio batzuetan ere desoreka nabarmenak daude.

2.3. MOTIBATZAILEAK

Motibazioa aipatzen hasita, lehenik eta behin Txepetx eta bere hizkuntzak ikasteko prozesua datozkigu burura. Txepetxen arabera, hizkuntzak ikasteko prozesuak hiru osagai ditu, elkarrekin lotura dutenak, osagai edo faktore batetik bestera pasatzeko nahikotasun maila batera heldu behar baita. Hiru faktore horiek *erabilera*, *ezagutza* eta *motibazioa* dira. Teoria hori oso modu argian azaltzen du Xamarrek *Orekan*¹³ liburuan:

Ibilbide naturala


Haurra hasieratik hizkuntzaren erabilera murgiltzen da; ez du ikasteko motibazio kontzienterik, mintzatzen denarekin egiten du topo. Entzuten ikasten du; ondorioz, hizkuntzaren ezagutza egiten du eta harekiko berezko motibazioa lortzen.



¹³ "Orekan", Xamar. Pamiela 2001.

Ibilbide kulturala

Pertsona nagusiak motibazio jakin batetik abiatzen dira beste hizkuntza bat ikasten: lanerako behar dutelako, beste kultura bat ezagutzeko, erbusteratu behar dutelako...; zernahi dela ere, motibazio horiek guztiak kontzienteak dira, pentsatuak. Modu horretan, motibaziotik hasita, ikasketaren bidez hizkuntza ezagutzen hasten dira eta behin maila nahikoa lortuta posible da erabiltzea, hitz egitea.



Pertsonen motibazioak ezagutzea ez da beti erraza izaten; izan ere, askotan pertsona bera ere ez da kontziente, edo kontziente izanda ere ez baititu gizartearen aurrean erakutsi nahi izaten. Gainera, pertsona baten portaeraren atzean dauden motibazioak gutxitan izaten dira argiak, bakarrak eta definituak.

Maslow-ren piramidean Maslowk pertsona denok ditugun beharren hierarkia bat zehazten du: behean, oinarrian, behar premiazkoenak daude (gosea, egarria...) eta horrela, mailaz maila igotzen hasita tontorrean autoerrealizazio eta norberaren garapen beharrak topatuko ditugu. Beheko mailako beharrak asetu ahala goiko mailetara pasatzen joaten garela adierazten digu Maslowk.

Bestalde, Gardner-en (1985) esanetan, bigarren hizkuntza bat ikasteko motibazioa hiru elementuren konbinaketa da:

1. Bigarren hizkuntza ikasteko nahia edo desioa.
2. Horretarako egiten den esfortzua.
3. Ikaskuntzarekiko aldeko jarrerak.

Gardneren hipotesia zera da: *Motibazioak eta jarrerak bigarren hizkuntzaren jabeakuntza eta erabileran eragiten dutela, gizabanakoa hizkuntza ikasteko aukeren bila bideratzen baitute. Gainera, aipatzen du motibazio altua ez dela nahitaez bigarren hizkuntzaren jabeakuntza onaren garantia.*

Gardneren hipotesi horrek, neurri batean, lehen aipatu dugun Txepetxeko hizkuntzak ikasteko prozesua gogorarazten digu.

Halaber, motibazioan bi elementu desberdinak behar dira:

1. Intentsitate motibazionala edo desioaren indarra.
2. Orientazio motibazionala edo bigarren hizkuntza ikasteko dagoen arrazoi mota.

Gai horri buruzko lan aitzindari batean, Gardner eta Lambert-ek (1972) orientazio motibazionalen lehen definizioak eman zituzten:

Arrazoi integratzailea, autore horien arabera, beste taldearekin eragin-trukea izateko nahiagatik ezagutzen da, eta beste talde horretara psikologikoki hurbiltzeko nahiagatik. Motibazio horrek eragindako ikasleak benetako interesa du bigarren hizkuntza bat duen komunitatean. Talde horrekin komunikazioa osoagoa izateko eta talde horrekin eta bere kulturarekin harreman estuagoak edukitzeko ikasi nahi du hizkuntza. Kasu horretan hizkuntza beste taldean integratzeko bidea da.

Bigarren orientazio mota, **orientazio instrumental edo pragmatikoa**, bigarren hizkuntzaren jabeakuntza eta erabilera errekonozimendu soziala irabazteko edo abantaila ekonomikoak lortzeko bide bezala ikusten denean gertatzen da. Horrelako motibazioa besterik ez duenak ez die kasu handirik egiten bigarren hizkuntzako hitzunei eta bere helburuak lortzeko bigarren hizkuntzak nola lagunduko dion bakarrik hartuko du aintzakotzat.

Bi orientazio mota horiez gain, autore horiek hirugarren bat ere aipatzen dute: **komunikatiboa**. Orientazio mota hori beste taldeko hitzunekin komunikatzeko nahiagatik ezagutzen da.

Azkeneko lanetan egiten ari diren berrikusketetan hainbat aldaketa proposatzen dira; esaterako, orientazio motibazional nagusienak integratzailea eta instrumentala baziren tradizio nagusian, horiek berrinterpretatuz ordezkot moduan proposatzen dira **intrintsekoa** eta **estrinsekoa** (Richards, 1993). Estrinsekoa pertsona bakoitzaren kanpoko arrazoiekin lotzen diren motibazio motekin osatzen da (integratzailea, instrumentala, komunikatiboa) eta, intrintsekoa, aldiz, pertsona bakoitzaren barneko arrazoiekin lotzen den motibazio mota da (barne nahia, autoestimua, helburuak lortzea, eta abar).

Bestalde, Arratibelek (1999), bere doktorego tesia egiteko, EAEko eta Nafarroako hainbat euskaltegitan ikasten zuten 566 subjektu helduz osatutako lagina hartu zuen; tradizioan nagusi ziren kontzeptuak erabiliz, bertan ateratako emaitza orokorrak honako hauek izan ziren:

1. *Gardnerek planteaturiko orientazio integratzaile, komunikatzaile eta instrumentaletik, integratzailea dena aurkitu da eta antzera funtzionatzen du gure egoeran ere. Orientazio komunikatzailea ez da gure testuinguruan bereziki agertzen, orientazio mota honi dagozkion aldagaiak orientazio integratzaileari dagozkioneekin batera agertzen dira, bi hauek bereizi gabe edo integratuz. Honen arrazoia izan liteke beste bigarren hizkuntza batzuek atzerriko jendearekin komunikatzeko balio dutela eta euskarak ez duela gaitasun hori, Euskal Herriak kanpo hitz egiten ez delako.*

2. *Orientazio instrumentala orientazio motibazional berezia dela esan genezake, gure testuinguruan ere aurkitu dugulako. Baina hau ere gure testuinguruan modu berri batean, bitan banatzen baita:*

a) *lan-munduarekin soilik lotzen den irabazia, alde batetik, "instrumental-laborala" deituko geniokeena.*

b) *bestelako irabaziak, hautazkoagoak direnak gizabanakoarentzat eta "instrumental-pragmatikoa" deituko geniokeena.*

3. *Bestalde, bestelako orientazio motibazionalak ere aurkitu ditugu, Gardnerekin lotzen den tradizioa berritzeko eta berrikusteko posibilitateak lagunduz.*

Gure lanketari dagokionez, eta oinarri moduan bestelako azterketarik izan gabe ere, administrazioko langileen artean nagusi izan den orientazio motibazionala instrumental-laborala dela esatea ez dugu uste arinkeriak esandako zerbait izango litzatekeenik.

Hori da, hain zuzen ere, sakontze-egitasmo honen helburu garrantzitsuenetako bat, administrazioko langileak euskarara erakartzeko eta euskaraz bizi daitezen lortzeko motibazio zerrenda zabaltzea, hizkuntza-eskakizunetik haratago euskarara hurbiltzeko hamaika arrazoi dagoela ikustaraztea, alegia. Hori da gure erronka.

Has gaitezen, beraz, zerrenda osatzen. Zer du gure produktuak (euskarak) beste produktuek (erdarek) ez dutena? Zein da euskarak duen balio erantsia? Egoera jakin batean euskara eta gaztelaniaren artean hauta dezakeen herritarra edo langilea ze arrazoik bultzatuko du euskara hautatzera?

Hautua alde batera edo bestera egiteko motibazioak era askotakoak izan daitezke, baina guk horietako batzuk, gure ustetan erabakigarrienak, zerrendatuko ditugu jarraian:

2.3.1. Hizkuntza-eskakizuna edo lan hobea lortzea

Orientazio instrumental-laboralaren barruan kokatu beharreko indar motibatzailea da hori. Goian aipatu dugun bezala, ez dugu uste inor asaldatu beharko litzatekeenik administrazioan alde handiarekin nagusitu den eta oraindik ere nagusitzen den motibazioa hori dela esango bagenu.

Baina euskararen normalizazioan erabilera da gakoa eta, jakin badakigu, hizkuntza-eskakizunek, berez, ez dutela ezertarako balio euskara erabiltzen ez bada.

Egunkarietan *lau urte barru Arabako Foru Aldundiko langileen %28,5ek dagozkien hizkuntza-eskakizunak bete beharko dituzte edo Gipuzkoako Foru Aldundiko lanpostuen %83k euskara eskakizuna izango du bost urte barru* moduko berriak irakurri ahal izan ditugu aurten ere. Egia da boterean dagoen alderdiaren arabera handitu ala txikitu egin daitekeela administrazioan hizkuntza-eskakizunek duten pisua, baina etorkizunean ere hizkuntza-eskakizunak garrantzitsuak izango direla aurreikusi dezakegu, exijitu edo eskatu ezin denean baloratuz gutxienez.

2.3.2. Hizkuntzaren prestigioa

Lionel Jolyk azaltzen digun bezala, hizkuntza minorizatuen ordezkapenean edo iraupenean garrantzi berezia duen elementua hizkuntzaren prestigioa da. Ordezkapen egoera nozitzen ari den hizkuntza prestigio gabekoa bada nekez iraungo du.

Horrela ulertzen dira Espainiako Estatuan aurkitzen diren ezberdintasunak. Katalanaren prestigioa gaztelaniaren antzekoa da; biak neurri berean lotzen dira modernitatearekin eta biek literatura unibertsaltzat jotzen den literatura dute. Galegoaren kasua, aldiz, erabat ezberdina da. Kasu horretan prestigio guztia gaztelaniak bereganatzen du eta galegoa, aldiz, oso markatua da, desprestigiatua, eta aurreiritzi negatibo batzuei lotuta dago. Horrela ulertzen da katalanaren eta galegoaren egoera soziolinguistikoen arteko aldea. Katalanaren kasuan hizkuntza irauten ari da, eta galegoak, aldiz, ordezkapen bidea hartu du nabarmen.

Beste adibide bat Frantziako Britainian topa dezakegu; han, prestigio kontuak zirela medio, frantsesa ezagutzen ez zuten guraso batzuek ez zieten bretoieraz hitz egiten haien umeei. Ezagutzen zuten frantses apurra besterik ez zuten erabiltzen.

Horrela, une soziolinguistiko batean, ordezkapen egoeretan, hizkuntza gutxituaren barne arauetik atxikimendu falta gertatzen da, eta era berean, hizkuntza folklorizatzen eta erritualizatzen da. Hizkuntza gutxitua une zehatz batzuei lotzen hasten da (jokoak, kirolak, jaiak...), baina hizkuntzaren erabilera oso murriztuta topatuko dugu, hitz batzuk edo espresio batzuk besterik ez baitira erabiliko.

Paradoxikoki, bere erabilera murrizten den heinean, bai hizkuntza gutxituarekiko atxikimendua eta bai hizkuntzaren lekua taldearen identitatea definitzerakoan asko handitzen dira, artzien fenomenoak gertatuz (erabilera behera / atxikimendua gora).

Andu Lertxundik dioen bezala, *euskaraz jakin arren erabiltzen ez duten euskaldunen kontua ez da kalekoa soilik, egunero ikusten dugun kontua da Legebiltzarreko jardunetan; administrazioako goi-mailetan halatsu; eta unibertsitatean; telebistako jardun formalenetan... Euskarak prestigio soziala behar du bizitzaren alor guztietan, eredu egokiak plazaratu.*

2.3.3. Herritarren presioa

Itzi Arrutiren iritziz, *euskal gizarteak udaletan euskara erabil dadin egin duen presioa hutsaren hurrengoia izan da.*

Euskal gizarteak euskaren alde mobilizatu denean, "sinbolikoki" mobilizatu da, baina ez da egon euskararen erabilera erreal eta eraginkorretara bultzatu duen mobilizaziorik. Ikusi besterik ez dago zein idazki gutxi iristen den euskaraz udaletara. Erabilerara zuzendutako gizarte mugimendu indartsu bat egon izan balitz azken urteotan, gaur egungo egoera aspaldian gaingaituta eduki beharko genukeen.

Egia bada ere eskaintza handitu ahala eskaera ere handitu ohi dela, egia da berebat, bezeroak (euskal hiztunak) euskaraz kontsumitzeko ohitura indartzen badugu, saltzaileak behar (erakargarri) horretara egokituko direla.

Iritzi berekoa da Jose Inazio Basterretxea ere: *Kontsumi genezakeena baino askoz gutxiago kontsumitzen dugu produktua euskaraz. Kontsumitzaile potentzialen eta egiazkoen artean dagoen aldea handia da, oso.*

Arrazoiak bilatzen hasita, hona bururatzen zaizkigun batzuk: administrazioan idazkiak euskaraz aurkezteko herritarrak duen gaitasun falta, urteetako inertzia, prozesua luzatuko dela pentsatzea (batzuetan arrazoi osoz)... Halaber, ahozko erabilerari dagokionez, kalean bezala administrazioan ere ez dago arau finkaturik eta elkarrizketa negoziatu egin behar da etengabe: eremuaren arabera (leku honetan eta gai honi buruz ondo ikusita dago euskaraz egitea ala ez, edota normalean erabiltzen dugun hizkuntza da ala ez), pertsonaren arabera... Horrela, euskaraz hitz egin aurretik egin behar den negoziazioa ukatzeko, erdararen erabilera da irtenbide errazena; *badaezpada erdaraz!* Gure ustez, horren azpian dagoen arrazoi edo fenomeno nagusia euskaldunon sumisio linguistikoa da.

Mobilizazio *sinbolikoaren* eta euskaldunon eguneroko portaeraren artean dagoen aldearen beste adibide argi bat egunero epaitegietan *sufritzen* duguna da; alde batetik, betiko errebindikazioetako bat, epaiketak euskaraz eta itzultzaileak gabe lortzearena dugu; eta beste alde batetik, errebindikazioaren balioa zalantzan jarri gabe, baina horrekin kontrastean, eta arrazoiak arrazoi, bitxia da ikustea epaitegietan gero eta euskarazko idazki gutxiago aurkezten direla. Euskaldun den-denok itzultzailearen figura erabiltzea eskatuko bagenu sistemak ezingo zuela jasan eta behea joko lukeela entzun genion duela gutxi epaile euskaldun ezagun bati.

Sendabidearen bila hasita, Anjel Lertxundik dio *naturaltasunaren pedagogia bat behar dugula bai euskararen etxe barrurako, baita hizkuntzen arteko harremanetarako ere; hizkuntza normal bizitzeko terapia psikologikoak aplikatu beharrean gaude: praktika psikologikoki orekatuak bilatu behar ditugu, eta ez neurotikoa, masokistak, morbosoa, agoniatsuak, konplexuz beteak.* Sumisio linguistikoari aurre egiteko eta karga emozionala gutxitzen laguntzeko teknikak behar ditugu euskaldunok. Horretarako, aspaldian ezagunak egin diren TELP tailerrak edo antzerakoak oso lagungarri izan daitezke.



Halaber, administrazioari ere eskatu behar zaio bitarteko guztiak jar ditzala leihatilara hurbildu eta euskaraz egin nahi duen herritarrak erraztasun guztiak izan ditzan; esaterako, harrera-gune guztietan euskaldunak jartzeaz gain, euskaldunak direla identifikatzeko euskarriak erabiliz.


2.3.4. Hizkuntza-komunitatearen izaera eta irudia

Euskarara erakarri nahi dugun horrentzat euskaldunok osatzen dugun komunitatea erakargarria baldin bada, berak gutaz duen irudia ona baldin bada, euskararekiko duen jarrera ona izateko aukera gehiago izango dugu.

Halere, euskal komunitate horretan ez dugu denok pisu bera; batetik, pertsona horrek bere inguru hurbilean dituen senide, lagun, lankide... euskaldunak daude. Horietaz duen pertzepzioa ona baldin bada, hau da, jatorrak, eskuzabalak, dibertigarriak... iruditzen bazaizkio, zalantzarik gabe pertsona horrek euskararekiko duen jarreran eragin positiboa izango du.

Euskara saltzaileak, hots, euskara teknikariak, atseginak garela, entzuten dakigula, bere arazoak (hizkuntzarena barne) ulertzeko gai garela... ikusteak ere pertsona horren euskararekiko jarreran eragin positiboa izango du. Gerta daiteke pertsona horri gertutasuna transmititzen dion detaile xume bat (bere alabaren izena gogoratzea, adibidez) espresuki motibaziora zuzendutako ekintza *sofistikatuena* baino erabakigarriagoa izatea.

Bestalde, berak erreferentziatzat edo *idolotzat* dituen pertsonak ditugu; horiek euskal komunitatekoak baldin badira, bere euskararekiko jarrera ere indartu egingo da. Demagun pertsona horri izugarri gustatzen zaiola zientzia eta beti izan duela gogoko Pedro Miguel Etxenike. Eta Etxenikez gain, gustukoen dituen futbolaria, txirrindularia, sukaldaria, aktorea eta telebista aurkezlea ere komunikabideetan euskaraz hitz egiten entzuten dituela.




Ez dakigu pertsona horiek euskaldunak izateak Txepetxen motibazioaren ontzia nahikotasun mailaraino betetzeko besteko indarririk izango duen, eta horregatik bakarrik pertsona hori euskara ikasten hasiko den, baina eragin positiboa izango du behintzat. Beste gauza batzuetan erreferente dituen pertsona horiek guztiak ezin direla hizkuntza kontuetan erratuta egon pentsatuko du ziurrenik.

Horren haritik, ETB2ko albistegietan, adibidez, euskaldunak euskaraz hitz egitera bultzatu beharko lituzketela uste dugu, erdaldunek ulertzeko gaztelaniazko azpitituluak erabiliz; ETB2n euskalduna erdaraz mintzo da, baina ETB1en erdalduna ez da euskaraz mintzo. Garrantzitsua da gure ustez hori, erdaldunen *zergatik ez dugu euskaldunok erdaraz egiten denok baldin badakigu erdaraz* mezua indartzen baitu, hainbeste kalte egiten digun mezua, hain zuzen ere. Orain arteko irizpideak, bide batez, erdaldunen begietan gure hizkuntza-komunitatea ikusezin ere bihurtzen du.

2.3.5. Euskarazko produktu erakargarriak

Orientazio instrumental-pragmatikoaren barruan kokatuko genituzke horiek. Euskarazko produktu erakargarriak sortzeko gai baldin bagara, erdaldunengan behar erakargarria pizten asmatzen badugu, urrats handia emanda izango dugu.

Herriko aldizkaria edo gustuko duen idazlea jatorrizko bertsioan irakurri ahal izateak, gustuko duen musika taldearen letrak ulertu nahi izateak edo BEC goraino betetzeko gai den bertsolari txapelketara joateko (eta ulertzeko) gogoak bultzatzea dezake euskaraz ez dakien hori euskara ikastera.



Erdaldunek zerbait galtzen ari diren sentsazioa izan behar dute, edo alderantziz, euskara ikasita lortuko duten sariak merezi duela hauteman behar dute.

Iritzi berekoa da Joxe Inazio Basterretxea: *Berebat, gurearen moduko hizkuntza minorizatu batean, garrantzitsuak dira hizkuntzaren beraren kalitate-estatusa eta atsegingarritasuna; nekez egingo baitu aurrera atsegina ez denak. Txikiak ona eta ederra behar du izan, besteen maila erdiesteko. Handiari eskatu ez zaiona eskatzen zaio maiz txikiari.*

Kultur produkzioarekin jarraituz, bada beste ideia garrantzitsu bat, Fishmanen teoretatik abiatuz Zalbidek azaltzen diguna: *Hizkuntza eta kultura, kultura eta hizkuntza, elkarren eskutik doazela eta burugabe samarra dela hizkuntza ahula, bere huts-hutsean, aurrera atera nahi izatea.*

Kultura batean txertaturik bizi da hizkuntza, eta kultura hori gabe ezer gutxitarako da hizkuntza bera. Eta, alderantziz, euskara galtzen den lekuan iraupen ahula du ohiko euskal kulturak ere: "cultura vasca, escritores vascos, cine vasco" eta nahi duzuna sortuko da, baina hori ez da jadanik euskaltasunaren harrobitik ateratako harlandua. Beste zerbait da hori, errespetu guztiarekin esanik.

Far Westeko filmeak ez dira beti-beti euskara egokienera itzuliak izango, baina itzulpenaren kalitateaz aparte "beste zerbait" da pelikula supraetniko horietatik Goenkalera dagoen tarte, batean zapping egitera bultzatzen gaituena eta bestean, hainbat euskaldun zahar eta gazte, egunero-egunero pantaila aurrean atrapatutik mantentzen dituen. Oker gabiltza, lanbidezko euskaltzaleok inor baino okerrago agian, "eso mismo, pero en euskera" bideratzen eta bultzatzen saiatzen garenean. Hortik sortzen den produktuak ez dio, gehiegitan, bere buruari eusten.

2.3.6. Euskararen antzinatasuna eta haren jatorriaren inguruko misterioak

Hizkuntzalarien iritziz, euskara ez dago ahaideturik beste inongo hizkuntzekin, ez gaur egungoekin eta ez historikoekin ere. XVI. mendeaz geroztik, galdera asko egin izan dira bere jatorri geografikoari eta genetikoari buruz, eta erantzunak ere ugariak izan dira.

Euskarak ez du bere inguruan jatorri indoeuroparra duen beste hizkuntzarik, eta hortik abiatuta, aditu eta idazle askok aztertu dute eta beste hizkuntza batzuekin erkatu dute, ahaidetasun edo antzekotasunen bat bilatu nahirik.

Esaterako, lehenago ere erreferentzia egin diogun *Neurona eta Zeurona* liburuan, Fermin Etxegoienek, beste kontu askoren artean, euskararen jatorriaren inguruko misterioa ere elikatzen du. Bere hitzetan, erro desberdinek osaturiko hitz bakar batean informazio asko nahiz askotarikoa doanean esaten da hizkuntza bat trinkoa dela eta horixe da euskararen kasua, latina edo grekoarena bezala. Etxegoienen ustez, halako tresna sofistikuak izateko ezinbestez goi mailako zibilizazio batean landutako hizkuntza izan behar du euskarak eta ez basati batzuen hizkuntza barbaroa, askok uste duen bezala. Bere ustez, latina eta grekoarekin gertatu zen bezala, noiz izan zen ez dakigun garai klasiko batean pertsona kultu eta jakin batzuek esanahiak sailkatuz, bateratasuna emanez... egitura konplexudun hizkuntza osatuko zuten; garai klasiko hura nahitaez existitu behar izan zela dio Etxegoienek. Ez tribu, Basajaun, Mari... Hori gero etorriko zen, dekadentziarekin batera.

Ezin ukatu, euskaldunon jatorriaren gainean dagoen misterioak eta adituek erakusten duten ezintasunak harrotasun puntu bat eragiten ez digunik.

Horren haritik, eta Iñigok Fernandezek dioenez, *oso da garrantzitsua hizkuntza batek hiztunari eskaini diezazkiokeen motibatzaile sinbolikoak zaindu eta elikatzea. Euskararen antzinatasunak eta haren jatorriaren inguruko misterioek, adibidez, gure hizkuntzaren alde funtzionatu dute nabarmen, hari halo berezi bat emanez. Oraindik ere motibagarri suerta daiteke askorentzat Europako hizkuntza zaharrenean mintzatzea, nondik datorren inork ez dakien hizkuntza bat hitz egitea, jende oso gutxik ulertzen duen hizkuntza (exotiko) batean jardutea, "abertzale" edo bertako sentiarazten laguntzen dion hizkuntza batean aritzea...*

Halere, Iñigo Fernandezek ustez, *gorabehera horiek denek jendea euskarara erakartzeko benetako motibatzaile gisa funtziona badezakete ere, ez dirudi gero jende hori egunero euskaraz bizi dadin lortzeko indar erabakitzailea izan dezaketenik.*

2.3.7. Desberdin izan eta sentitzeko aukera

Kontsumo gizarte modernoan izaten ari den homogeneousizazio fenomenoaren ondorioz, munduan punta banatan bizi diren pertsonen produktu berberak kontsumitzen dituzte; horrela, Nueva Yorken, Tokion edo Bilbon bizi, jendeak arropa estilo berbera janzteko aukera du, adibidez.

Baina jaka bat erosi eta kalera irtendakoan denak jaka berdinarekin ikustea gustatuko ez litzaigukeen bezala, ez dugu uste hizkuntza bakarreko mundu batean gustura sentituko ginatekeenik; izan ere, ile eta begien kolorea edo izaera bezala, hizkuntza ere gure pertsonalitatearen alderdi garrantzitsu bat baita.

Euskaraz janzteak desberdin sentiarazteko aukera ematen digu. Euskal Herritik atera eta nongoak garen esandakoan *baina euskaraz hitz egiten ba al dakizu?* galdetzen digutenean, berezi sentitze horrek ez al digu harrotasun puntu bat ematen?

2.3.8. Euskara funtzionala eta gozagarria

*"(...) maita, maita, maita nazazu gutxio
goza, goza, goza nazazu gehiago (...)"*

X. Amuriza

Euskaraz jakin eta euskararen alde dauden gazte buruargiotako askori, eskola kontuotarako bakarrik balio die euskarak. Ikasi, primeran ikasten dute euskaraz. Are gehiago: batzuk izutu egingo lirakeke ikasgaitzen bat edo beste gaztelaniaz egin behar balute. Bizi ere (gozatu, haserretu, limurtu...) euskaraz egin nahi lukete, nik uste, baina...

*ezin, ordea: eman diegun euskarak ez die horretarako balio. Paragrafo hori Joxerra Gartziaren Jendaurrean hizlari*¹⁴ liburutik ateratakoa da; hori idazterakoan bere ikasleak ditu gogoan Joxerrak. Jarraian, eta gaur egungo egoera deskribatu asmoz, Kike Amonarrizi gertatutako pasarte bat kontatzen digu:

Joan da Kike ikastola batera hitzaldi bat ematera. Aretora sartu baino lehen, antolatzaileekin geratu da, atarian, berriketan. Han dagoela, ikastolako bi mutiko ikusten ditu, handik hurbil, borrokan. Ikusi ez ezik, entzun ere bai: hango putakume, kabroi eta horrelako irainen dantza!

Halako batean, mutikoetako batek borrokatzeari utzi eta ohartarazi du arerioa:

- ¡Que está mirando la andereño de euskara!

Hori jakinda, besteak ere utzi dio borroka egiteari, eta han geratu dira biak, elkarri begira, zer egin ez dakitela. Segundo batzuk geroago, mutikoetako batek aurkitu du borrokan euskaraz jarraitu ahal izateko behar duen iraina:

- Tontolapiko!

Esango didazue zer egin behar duen haserretzen denean “tontolapiko”tik gorako irainik ezagutzen ez duen hiztunak! Batere sana bada behintzat, bere haserrea behar bezala bideratu eta barrua lasaitzeko moduko irainak eskaintzen dizkion hizkuntza batera jo, noski.

Asko du euskarak horretan hobetzeko. Guk aztergai ditugun taldekoak ez izan arren, eta berriro eskola mundura bueltatuko bagara ere, hori bera erakusten digu Euskal Herriko nerabeen artean egindako inkesta batek¹⁵; inkesta horren arabera, nerabeek gaztelaniari edo ingelesari atxikitzen dizkiote funtzio eta balio komunikatibo eta praktikoak, erabilerari zeharo lotuta dauden dimentsioak alegia, eta, aldez, euskarari atxikitzen zaizkio balio mitiko, politiko edo identitate-emaileak. Euskarak egiten du euskaldun gaztea, baina gaztea erdaraz bizi da.

Josune Zabalak, ahozkotasuna ikertu eta transmitituko duen *Mintzola* fundazioko zuzendariak, ARGIAn egindako elkarrizketa batean¹⁶ aipatzen zuenez, komunikazioan *muinera goaz, eta beste guztiari garrantzia kendu diogu: hizketarekin gozatzeari, hitz berriak sortzeari, hitz-jokoak egiteari, hitzarekin jolastearen plazerari...*

Euskara funtzionala dela sentitu behar dugu euskaldunok. Batetik, euskarak edozein esparrutan aise moldatzeko balio digula, hala nola, lanean, kalean, dendan...; eta, bestetik, edozein funtziotarako dela baliagarria; esaterako, atzoko plana kontatzeko, pozik edo triste gaudela transmititzeko, gezurra esateko, haserretzeko, lankideekin laneo kontuez hitz egiteko, lagun minari maite dugula esateko...

Joxerrak dioen bezala *axola dioten gauzetarako balio badio erabiliko du hiztunak hizkuntza; balio ez badio, batera egingo dizkio kaixo eta adio.*

Iñigo Fernandezen ustez, *gutxitan mintzo gara, eta egoera oso konkretuetan soilik, gozatzeko gaitasun nahikorik ez dugun hizkuntza batean (...). Jolaserako bide ematen ez dion hizkuntza batean aritzeko joerarik ez du izango inork inoiz, hizkuntza horretan gutxi gorabehera moldatzeko gaitasuna izan arren. Hitz egitea ez baita informazioa trukatzea soilik. Gozatu egiten du hiztunak hitz egiterakoan, hizkuntzaren aukera ezberdinekin jolas eginez, hau edo beste hura azpimarratuz, hizkuntza dastatuz etengabe. Hiztunak hizkuntzarekin gozatu egiten duela diogunean, esan nahi dugu bere burua adierazteko balio diola hizkuntza horrek, bere burua asetzeko eta besteengan eragiteko.*

Inoiz aipatu izan dugu euskaldun bat erdaraz hitz egiten entzutean euskaldunak eman beharko ligukeela pena eta ez euskarak; pena bai, ez dakielako euskaraz bizitzen

¹⁴ “Jendaurrean hizlari”, Joxerra Garzia. Alberdania 2008

¹⁵ “Gaztetxoen hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak”, J.M. Hernandez, 2000.

¹⁶ Argia aldizkaria (2009-VII-5)

sentitzen den plazera aprobetxatzen. Batean batuan eta bestean *euskalkixan* hitz egiten zenbat gozatzen dugun jakingo balu gutxienez!

Bestalde, badira, Fermin Etxegoien bezala, hizkuntzaren alde estetikoa landu behar dela diotenak ere: *Nire ustez, diskurtso nagusiak dio hizkuntza esentzia dela (...). Nik badakit hizkuntza esentzia dela zenbaitentzat. Beste zenbaitek hizkuntza erlijio duela esango du. Beste batek esango du hizkuntza mundua begiratzeko, ulertzeko, gorpuzteko modua dela. Niri horien esanak onartzea beste erremediorik ez zait geratzen. Baina hori ez da nire esperientzia. Nire esperientzia da hizkuntza ariketa estetizatzailea dela. Margolari baten adibidea ekarriz: margolariak zer egiten du munduko gertakariak bere pintzelaren bidez adierazi baino? Eta hori egiten duela, munduko gertakariak estetikoki ere moldatzen ditu. Hitz egitea gauza bera da. Munduan bi eratako gertakariak ditugu: fisikoak, batzuk; mentalak beste batzuk. Gertakariak geureganatu eta berritzuli egiten ditugu mundura, hizkuntzaren bidez. Hitz egiten ari garenean zertan ari gara munduko gertakari horiek estetikoki moldatzen baizik! Nire ustez, hizkuntzaren ariketa berez da estetizatzailea.*

Bukatzeko, bada hizkuntza funtzional eta gozagarriarekin erlazioa duen beste kontzeptu bat, sedukzio indarrarena. Orain arte entzun gabe genuen kontzeptua bazen ere, berak adierazten duena ez zaigu askori hain arrotza egiten. *Hizkuntzek badute sedukzio indar bat. (...) Ni ere harrapatu egin ninduen hizkuntzak* dio Koldo Izagirrek. Sedukzio indar hori da, hain zuzen ere, elikatu beharrekoa; baina horretarako hiztunak euskarak eskaintzen dituen baliabideak ezagutu behar ditu, eta horiek erabiliaz gozatu, eta orduan bakarrik harrapatuko du euskarak hiztuna, gu harrapatu gaituen bezalaxe.

2.3.9. Hizkuntza-komunitate plurala eta askotarikoa

Anjel Lertxundi¹⁷: *Euskaraz ez dakiten euskal herritarrek giza talde monolitiko baten moduan ikusten bagaituzte, denok berdinak bagara haien pertzepzioan, kolore bakar bateko hiztun talde baten irudia transmititzen badugu, errealtatearekin batere bat ez datorren irudi oker bat eskaintzeaz gainera, geu bihurtzen gara, neurri handi batean, euskararen inguruko aurreiritzi askoren iturri eta erantzule.*

Aitortzea ez da aski: oso errotua baitago, administraziotik beretik hasita, euskara ikuspegi politiko jakinekin lotzea; pauso batzuk pentsatu eta eman beharko dira aurreiritzi horien kontra borrokatze aldera.

Euskal komunitatea plurala da, medikuak, arkitektoak, kazetariak... denetarik dago eta ideologikoki ere, ziurrenik, dirudiena baino pluralagoa izango da. Euskararentzat garrantzitsua da ideologia desberdineko euskaldunak edukitzea eta hala dela erakustea.

Lionel Jolyren iritziz, *gaur egun, hizkuntzaren despolitizazioaren aldeko ikuspuntu bat zabaltzen ari da. Bi zatitan bananduko dugu azken ikuspuntu hau: alde batetik, hizkuntzak tresnak besterik ez direla esaten dutenak ditugu. Beste batean, euskararen normalizaziorako hizkuntzaren despolitizazioa ezinbestekoa dela pentsatzen duten autoreak daude (...)* beraien ustez merkatu linguistiko oso bat osatzeko nahitaezko ezaugarria delako. *Euskararen erabilera markatua ez izateko eta gizarte bat euskaraz bizi dadin, ideologi mota guztietako pertsonak, gai guztietaz hitz egiten dutenak euskaraz, beharrezkoak direlako.*

2.3.10. Indar ez-motibatzailea: esfortzu txikienaren legea

Euskal Herrian askotan erabili izan da *konpromiso* hitza: euskararekiko konpromisoa, herriarekiko konpromisoa, Euskal Herriarekiko konpromisoa... Zorionez ala zoritxarrez, baina bizi dugun gizartean, horiek ez dute garai batean izan zezaketen indarririk. Fermin Etxegoienek, *Neurona eta Zeurona* liburuan azaltzen duenez,

¹⁷ http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Erdarazko%20definitiboak/anjel-lertxundi_es.pdf

konpromisoa edo esfortzua modukoak ezin ditugu gaur egun motibatzaile moduan erabili:

Hizkuntzak izaki bizidunak bezalakoak direla diote batzuek.

Hori horrela baldin bada, esan behar da naturan –izaki bizidunen arteko lehian– esfortzu txikiaren legea dela nagusi, oportunismoa. Han inork ez du dobleko lanik egingo lan erdiak eginda zerbait lortzerik baldin badauka.

Hizkuntzen arteko lehian, aldiz, guk gehien preziatzen dugun jende mota kontrakoa egina da: hizkuntzaren defentsan, sostenguan eta bera birproduzitzen, dena eman duen jendea da, euskararen alde lan eta denbora asko inbertitu duena, kontzientziatuak, ideologiadunak, eta benetan txalogarria da erakusten duten konpromisoa. Baina, esfortzu txikiaren legea betetzen ez duten horiek ezingo ditugu eredu moduan jarri, ez baitigu balioko, izaki bizidunon joera ahalik eta esfortzu txikiarekin egitea baita.

“Euskaraz bizi behar dugu” pentsatzen du euskaraz baino erdaraz hobeto eta erosoago moldatzen den euskaldun askok eta askok; “Euskara zaindu, maite, adoratu beharra daukagu”. Eta erosotasun falta, inguru erdaldun eta aurka izan daitezkeen era guztietako baldintza eta faktoreen gainetik, harrigarriki asko gara egunero-egunero euskarazko hautua egiten dugun euskaldun “patetikoak”. Eta azpimarratu beharra dago ere, gure aurretik urte askoan hautu hori egin duten askori esker gaudela orain gauden lekuan.

Baina gizakion portaera “naturala” esfortzu txikiarekin egitea bada, oportunismoa, ez gintuzkete harritu beharko naturalki euskara utzi eta erdararen bat aukeratzen dutenek; nolabait portaera ulergarria, logikoa, dela ere esango genuke. Izan ere, asko dira gaur egun erdara aukeratzen duten euskaldunak, horretarako errepresio linguistikorik ere behar izan gabe.

Euskara maitatu edo erabiltzeko, euskara-erdararen artean euskara aukeratzeko konpromisoa eskatzea fede eskakizuna da; are gehiago, non-nahi euskararen aldeko aukera hori praktikan jartzeko dauden gutxieneko baldintzak betetzen ez direla ikusita.

2.4. MEZU NAGUSIAK

Xede-taldearen arabera motibatzaileak aldatzen diren bezala, mezu desberdinak erabili beharko genituzke, adibidez, erdaldunei edo euskaldun zaharregana zuzentzen garenean.

Ez da gure asmoa mezuak xede-taldearen arabera xehatzea. Jarraian mezu orokor batzuk zerrendatuko ditugu, hartzailea edozein herritar edo administrazio langile izanda ere, baliagarriak izan daitezkeelakoan.

2.4.1. Euskara salbatuta dago!

Ken dezagun behingoz euskara salbatzen ibili behar diren zama astun eta nekagarri hori gainetik!

Gaur egun ditugun datuen arabera, badirudi hizkuntza batek etorkizuna izateko bi baldintza bete behar dituela: batetik, hiztun kopuru garrantzitsua, beharbada 100.000 hiztunetik gorakoa (hobe 500.000 ingurukoa gutxienez); bestetik, hizkuntza eta kultura zaintzeko eta lantzeko herri-eraketa, hizkuntzaren ofizialtasuna edo koofizialtasuna aldarrikatu, bideratu eta zainduko duena. Baldintza horiei corpusari dagokiona gehi geniezaieke, hau da, arauak, hiztegiak, gramatika... izatea.

Euskarak, dagoeneko, ondo betetzen ditu baldintza horiek, oinarri sendoa dauka eta desagertzeko benetako arriskurik ez du. Hori esatea eztabaidagarria dela esango du

batek baino gehiagok; guk ez dugu hala uste, eta gainera, komunikazioaren ikuspegitik, euskara salbatuta dagoela esatea komeni zaigu, hondoratzera doan barku batera ez bailuke inork igotzerik nahi, ala bai?

2.4.2. Erabileran dago euskararen etorkizunaren gakoa

“Hemen jendeak gehiegi hitz egiten du euskarari buruz, eta gutxiegi euskaraz!”

Joxemiel Iztueta, “Lazkao Txiki”

Erabiltzen ez den hizkuntzak ez du etorkizunik. Nahi beste kanpaina edo plan egin ditzakegu, hizkuntza-eskakizunak ezarri han eta hemen, berriro ere 5 futbol-zelai bete edo ikastolen aldeko jaialdi jendetsuetara joaten jarraitu, baina horrek guztiak ez du askorako balio gero ez bada euskara erabiltzen. Euskararen alde egin dezakegun ekintzarik garrantzitsuena, aukera dugun guztietan euskara erabiltzea eta euskarazko produktuak kontsumitzea da.

Atxaga¹⁸: *Abdetfattah Kilitok behin idatzi zuen bezala, hizkuntza xaboiaren kontrakoa da: zenbat eta gehiago erabili xaboia, orduan eta urrituago eta xahutuago; hitzak, ordeak, alderantziz, zenbat eta erabiliago orduan eta aberatsago. Beraz, hitza biziko bada nahitaezkoa da errepika, nahitaezkoa da jendearen ahotan behin eta berriro egon dadin. Arabiar jakintsu batek ere hala adierazi omen zuen: “Hitzaren iturriak isuri egin behar du bere ura, gastatu eta alferrik galdu egin behar du bere ura”*

Bestalde, Iñigo Fernandezek kritikatu egiten ditu euskal identitatea euskara ezagutzeak eta ez erabiltzeak ematen diela uste duten hainbat eta hainbat euskaldun *sinpatiko* (abertzale?): *euskaldun zahar askok nahikotzat jotzen dute beren euskara maila, lasaitasun guztiarekin jotzen dute sistematikoki erdarara eta, euren buruak “euskaldun autentikotzat” dituztenez, ez dute inolako ahaleginik egiten beren hizkuntza maila hobetu, aberastu edo behintzat pobretzen eta erdaratzen joan ez dadin.*

Zaila da sinisten maite omen duten hizkuntza hobetzeko ahaleginik egiten ez dutenak euskararen militante direla edo euskararekin konprometituta daudela. Euskara estimatzen duen euskaldunak jakin behar du erabiltzen duenean ematen diola arnasa hizkuntzari, eta hori baino gehiago, hizkuntza indartu egiten duela euskararekin gozatu eta gozaraztea lortzen duenetan.

2.4.3. Euskararen normalizazio prozesuak ez du atzerakorik

Erritmoa bat ala beste izango da, baina etorkizunera begira euskal gizartearentzat posible den hipotesi bakarra euskara normalizatuta duen gizartearena da; ez dago alternatibarik eta horretan ez luke inork zalantza txikiena izan behar.

Administrazioan hainbat eta hainbat langile dabil hizkuntza-eskakizuna atera nahian, lehenago edo beranduago beharrezkoa izango zaiela jakin baitakite. Baina demagun, datozen hauteskundeei begira, Ajuria Enean berriro aldaketa izango dela aurreikusten dutela inkestek; are gehiago, irabazteko aukera gehien duen alderdia behin eta berriro ari da esaten erabat kenduko dituela administrazioko hizkuntza-eskakizunak. Orain jar gaitezen egunero bi orduz euskaltegia joaten den langile horren lekuan; motibazio berarekin ikasiko al du? Zalantzan hasten bada euskara ikasteko esfortzuak mereziko duen ala ez, eta euskara ikasita lortutako onuren poltsa uste baino txikiagoa ez ote den, motibazioa nabarmen jaitsiko zaio.

Jar dezagun beste adibide bat, hizkuntza-eskakizuna ateratzeko euskara ikasten hasi behar den baina gogo handirik ez duen langilearena. Ikasketa prozesua bide luze eta malkartsua izango dela jakin badaki, eta bide horri ez ekiteko alternatibak edo zirrikituak daudela uste badu (adibidez goian jarri dugun botere aldaketarena), alternatiba horiek

¹⁸ <http://www.atxaga.org/testuak-textos/andimaren-liburu-bat-eskuan>

bilatuko ditu, ez bailuke alferrikako lanik egin nahi, are gutxiago motibazioaren ontzia gehiegi bete gabe duela kontuan izanda.

Ez genuke utzi behar inork halako zalantzak izaten, eta euskararen aurkako mezuak lehenbailehen indargabetu edo neutralizatu beharko genituzke; nola ez du ba mereziko euskara ikasteko egin beharreko inbertsioak!

Uneren batean normalizazio prozesua gelditu edo prozesuak pixka bat atzera egingo balu ere, etorkizun posible bakarra euskara normalizatuta duen gizartearena dela jakin beharko luke euskal gizarte osoak; hori da herritar orori transmititu beharreko mezu nagusietako bat.

Gero eta isolatuago geratzea nahi ez badute, euskararen trenera lehenbailehen igotzea komeni zaiela, horixe da erdaldunek pentsatzea eta sentitzea lortu beharko genukeena.

2.4.4. Normalizazio prozesuak lidergo sendoa du eta ondo doa

Egia da euskaldun *patetiko* askok baikortasunaren txertoa behar dugula, eta sarritan aurrera baino atzera ez ote goazen pentsatu izan dugula; pentsatu ez ezik, egia ere bada esparru batzuetan atzera egin duela euskarak (herri batzuetako kale erabileran, esaterako). Gogorra da instituzioei, inongo frogarik eman gabe, dena ondo doala entzutea eta gero eguneroko errealitatearekin topo egitea. Askorentzat instituzioetatik iristen diren mezuek dagoeneko ez dute sinesgarritasunik.

Euskaltzale askoren sentimenduak azaltzeko duela gutxi komunikabideetan agertu diren pare bat iragarki azter genitzake: sakelako telefonoetan euskara erabiltzera animatzen duena bata, eta *pixka bat es mucho* kanpaina bestea. Dena *guay* dela esatea egokia eta eraginkorra izango da xede-talde zehatz bati zuzendutako komunikazio helburua lortzeko; dudarik gabe; baina beste xede-talde batengan, euskaraz bizitzeko aukera egia bihurtu nahi eta egunero mila traba topatzen dituen askorengan, kontrako sentsazioak eragiten ditu, haserrea ere bai, eta horiei zuzendutako mezuak ere beharko genituzke.

Ze motatako mezuez ari gara? Zerk baretuko luke euskaltzale horien haserrea?

Instituzioek bultzatzen duten euskararen normalizazio prozesua zein den ezagutzeak, egiten den edozein kanpaina edo ekintza hizkuntza-politika horren baitan eta horrekin koherentzian dagoela jakiteak, eta zentzuzkoa ere badela ikusteak, lasaitu egingo luke ziurrenik herritar euskaltzalea.

Euskara ogibide dugunok, nola edo hala, ezagutzen ditugu zein diren hizkuntza-politikaren zutabe horiek: euskararentzat funtzio oinarritzkoenak irabaztea (familia transmisioa, hezkuntza eta gazteen aisialdia, lan-mundua...), progresibotasuna, gune soziolinguistiko bakoitzera egokitutako helburuak jartzea, arnasguneak zaintzea...

Hizkuntza-politika hori ezagututa, agian, herritar euskaltzale horri ere zentzuzkoa irudituko litzaioke sakelako telefonoak euskaraz erabiltzera animatzen duen iragarkia, eta ulertuko luke administrazioak diru-laguntzak ematerakoan zergatik lehenesten dituen esparru batzuk eta ez besteak. Garrantzitsua da itsasontziak kapitaina baduela eta norantz goazen argi duela transmititzen asmatzea.

Eguneroko oztopoetatik haratago, euskaltzaleak ikusiko balu euskararen normalizazio prozesua, bere osotasunean hartuta, norabide egokian doala, uste dugu bera ere urrats berriak ematera animatuko litzatekeela. Euskara salbatzeaz esan dugunera bueltatuz, zama astunena (euskara salbatzearena, normalizazio prozesuaren erantzukizuna...) eta bakardade sentsazioa alde batera utzita, euskaltzaleak bere inguruan ematen duen pauso bakoitza prozesu osoari egiten dion ekarpen txiki baina garrantzitsua dela sentituko du.

2.4.5. Hizkuntzen ekologia

Pablo Suberbiolak bere ikasgaiari Albert Bastardas i Boada irakasleak 2004ko *Linguapax* kongresuan aurkezturiko lana azaltzen digu. Merezi du ikasgaia osorik irakurtzea, baina guk hemen ideia aipagarrienak jasoko ditugu:

Batzuentzat, beharrezkoa da biztanleek beren jatorrizko hizkuntzei uko egitea eta estatu edo mundu mailako komunikazio kode handiak soilik hartzea, beren garapen ekonomiko edo kulturean aurrera egin ahal izateko. Besteentzat, borroka hizkuntza aniztasuna eta identitate kolektibo ezberdinak bizirautearen eta zaintzearen aldekoa da argi eta garbi, biziraupenerako betidaniko ekosistema desegiteak dakarren pobretzea eta anomia ekiditeko bide bezala, eta kultura bakoitzak sortu dituen jakintza herrikoiak gordetzeko.

Hizkuntza aniztasunari buruzko ikuspegi “ekologiko” eta berdintasunezko batek ideologia zapaltzaile eta hedatzaileen amaiera ekarri beharko luke. Era berean, premiazkoa da justiziazkoa da hizkuntza hobek/apalagoak daudela sinisten duen hierarkizazio baloratiboari amaiera ematea. Hizkuntza eta hiztun talde guztien duintasun berdina aitortzea.

Zergatik ezin dugu babestu gure hizkuntz ingurugiroa, arazoak jakitun garen espezie bat garen neurrian? Beharrezkoa da hiztun taldeen biziraupena sustatzea, gure ondorengoentzat hizkuntzak iraunarazteko. Hizkuntzen iraupenak dakartzan etekin pertsonalak eta taldekoak (autoestimua gehiago, taldearen autoirudi positibo gehiago, jatorriagatik ez lotsatzea, eta abar) neurtzen ez diren arren, garrantzitsuak dira pertsonen zorientasunerako, gaur egungo kasu askotan ikusten dugunez.

Hizkuntza garapen iraunkorrek onartzen du eleaniztasuna eta taldeen eta pertsonen arteko interkomunikazioa, baina aldi berean hiztun taldeen erabateko garapena eta jarraipenerako aukera eskatzen ditu. Hizkuntza garapen iraunkorrean, garatu nahi dugu eta elkar komunikatu nahi dugu, osatzen gaituzten eta identifikatzen gaituzten hizkuntza baliabideak suntsitu gabe. Aniztasuna zaindu beharreko balore bat da, baina ez bitxikeria antropologiko gisa, baizik eta pertsonen eta gizartearen berezko eta uka ezinezko duintasunaren mailan.

Garapen iraunkorraren terminologia gaur egun mundu mailan krisian dauden hizkuntz ekosistema ugarietara aplikatzen badiegu, agian hasi beharko genuke hitz egiten hiztun taldeen bideragarritasun ekologikoa –ekolinguistikoa– bermatzeaz. Ingurugiroan edo ekologian eragina neurtzeko ikerketak egiten diren bezala, guk ere iritsi beharko genuke ekonomia, politika, hezkuntza, migrazioa, teknologia berriak eta beste hainbat arlotan hartzen diren neurrien eragin soziolinguistikoa ikertzera.

Garapen iraunkorrek, itxuraz aurkako diren biren arteko uztartzea bilatzen duena: ekonomikoki garatu eta ingurugiroa ez kaltetu, edota, hizkuntza bat baino gehiago jakin/erabili baina bakar bati uko egin gabe.

Iñaki Arrutik, 2006an Mondragonen egin zuen hitzaldian, hizkuntza ekologiaren diskurtsoaren ardatz nagusiak zerrendatu zituen:

1. Berdintasunaren printzipioa: hizkuntza denak berdinak dira eta bizitzeko eskubide bera dute.
2. Hizkuntzen aniztasuna munduaren aberastasuna da.
3. Hizkuntzaren biziraupena hizkuntza-komunitatearen izateko nahian oinarritzen da.
4. Herria, nazio linguistikoa da, hizkuntza-komunitatea da.
5. Edozein zeregin euskaraz egiteko eskubide naturala dugu.
6. Minorizatutako hizkuntza bat normalizatzea erantzukizun etikoa da, justiziazkoa da.
7. Euskararentzat definitzen dena munduko edozein hizkuntzarentzat eskatzen dugu.

8. Diskurtso hau intelektualki indartsua da, zaila du intelektualki aurre egin nahi dionak.

2.4.6. Globalizazioa bera ere gure alde

Globalizazioaren garaian bizi garela aipatu dugu hasieran; informazioaren eta komunikazioaren garaian bizi gara eta zaila da halakoa izango ez den etorkizunik irudikatzea. Beraz, abiapuntu moduan, onar dezagun etorkizuna ere bide beretik joango dela; hipotesi posibleena behintzat hori dela dirudi.

Globalizazioak euskara irentsiko duela uste izan dugu askok, ibaiari presa jarrita agian urte batzuk atzeratzea lortuko genuela, baina lehenago ala beranduago urak bere bidea egin eta itsasora iritsiko zela. Hizkuntza gutxituek lehendik zituzten arazoak areagotu egingo direla diote aditu batzuek, eta espainiera, ingelesa, errusiera edo txinera bezalako hizkuntza indartsuak nagusituko direla munduan barrena.

Jarrera ezkorra duten aditu horien ustez, ikus-entzunezko komunikabide berriek (internetek, esaterako) pentsamendu bakarra, homogeneousun kulturala eta kultura txikien eta hizkuntza gutxiagotuen desagertzea ekarriko dituzte; laburbilduz, globalizazioa eta aniztasuna kontzeptu kontrajarriak dira.

Baina eskuineko grafikoa ikus daitekeenez¹⁹, guk bizi dugun globalizazio mota hau gabe ere, azken mendeetan inoiz eten ez den fenomeno da hizkuntzak desagertzearena.

Ez genuke, beraz, globalizazioa eta hizkuntzak desagertzea nahitaez elkarren eskutik doazela pentsatu beharko; globalizazioa ondo kudeatzen asmatuz gero, kontrakorako ere erabil baitaiteke, hau da, hizkuntzen ordezkatze prozesuak gelditu eta berreskuratze bidean jartzeko.



Hala uste du globalizazioa euskara bezalako hizkuntza gutxiagotuentzat ona izango dela defendatzen duen hainbat adituk, gutako asko konbentzitzeko arrazoiekin gainera; aditu horien ustez, globalizazioa kultura eta gutxiagotutako hizkuntzen mesedetan izango da, eta horiek babesteko balioko du.

Adibidez, Migel Puig-ek, Kataluniako Telebista eta Irratiko Korporazioaren zuzendari nagusiak, Koldo Mitxelena teknologia berriei eta kultura txikiei buruz eman zuen hitzaldian adierazi zuenez (Egunkaria 2000-04-01), interneten iraultzak kultura eta hizkuntza gutxituen alde jokatzen du eta hori argudiatzeko hiru datu aipatu zituen:

- *Itzulpen sistema automatikoak gero eta hobeak dira, eta jada hasi dira oso ondo funtzionatzen.*
- *Ahotsa irakurtzen duten programen garapena.*
- *Kultur argitalpena merkeagoa da eta baita errazagoa ere. Sarean sartutako materiala mundu osora iristen da.*

Hortaz, zerbait esateko edo erakusteko duen edonork bere mezua munduratzeko aukera ezin hobeak ditu, hizkuntza edozein dela ere. Blogek eta tokiko komunikabideek izan duten zabalkundea dira horren erakusgarri (Euskal Herrian, esaterako, euskaraz ari diren hainbat herri telebista eta 7.500 blog inguru daude²⁰).

Halaber, globalizazioarekin eta ikus-entzunezko komunikabideen garapenarekin, gutxitutako hizkuntza-komunitateek elkarren berri izateko aukera gehiago ditugu (Bretainian arrakasta izan duen ekimen baten berri berehala jaso dezakegu, adibidez) edo

¹⁹ http://www.hizkuntzagutxituak.net/descargas/ponencias/Fernand_de_Varenes-eus.ppt

Jatorrizko iturria: <http://web.nickshanks.com/languages/english/global-ft.html>

²⁰ <http://www.hizkuntzagutxituak.net/eus/hitzaldiak/luistxo-eus.html>

gure eskubideak aldarrikatzeko denok elkartu eta indar gehiagorekin defendatu ditzakegu (Europar Parlamentuan gutxitutako hizkuntzen aldeko adierazpen bat lortzeko adibidez).

Baikor dauden beste autore batzuen ustez, globalizazioak ez du hizkuntzen aniztasunean eragin bortitzik izango, kultura eta hizkuntza txikiak globalizazio prozesuetara lehen ere ohituta daudelako; maila txikiagoko globalizazio prozesuetatik babesteko txertoa hartua dugu, alegia. Gurea ere, askok uste duenaren kontra, ez da herri isolatua izan: zeltak, erromatarrak, bikingoak, alanoak, sueboak, bandaloak, bisigodoak, frankoak, arabiarrek... izan ditugu gure artean; beraz, beste era batzuetako globalizazio prozesuetara gu ere ohituta gaude.

Azkenik, oso argudio sendoa iruditzen zaigu identitate kolektiboak zergatik ez diren desagertuko azaltzeko Castells-ek darabilena; izan ere, bere ustez, *munduan gertatzen ari den geldiezineko prozesu bateratzailearen ondorio garrantzitsuena da noraezeko egoera ekartzen digula gizabanakooi eta, horren aurkako erreakzio bezala, hurbilen ditugun gauzenganako itzulia egiten ari garela. Hau da, bizi garen mundua gero eta konplexuagoa da, eta hori guztia ulertzeko arazoak ditugu. Ondorioz, hurbiltasunerako itzulia egiten ari gara; Castellsek dioen bezala, ezagutzen ditugun eta neurri batean kontrola ditzakegun eremuetara itzultzen ari gara; eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunak, familia, herri nortasuna, erlijioa...) eta tokian tokiko identitatearen beharra. Kulturak estandarizatu eta homogeneizatzeko joera orokorrekin tribalizazio berriak eta hurbilen dugunerako atxikimendu handiagoak ekarriko dituzte. Eta horrekin batera, baita hizkuntza gutxiagotuekiko atxikimendu handiagoa ere. Globalizazioa nahitaez gertatuko den prozesua bada ere, ez da herrien eta hizkuntzen aurka joango. Gutxitutako kultura eta hizkuntzak gordetzen eta garatzen lagunduko duten joerak bultzatuko ditu, identitate kolektiboak sendotuz. Esanak esan, globalizazioak ez ditu hizkuntza txikiak egun batetik bestera desagertuko.*

Komunikazioaren ikuspegitik, globalizazioa bera ere euskararen mesederako izango dela transmititzea komeni zaigu, lehen esan bezala hondoratzen doan barkura nekez igoko baita norbait; itsasontzia sendo ez ezik, haizea ere alde dugu, pentsa!

2.4.7. Ahaleginak eskertu eta txalotu

Fishmanen esanetan erdal munduak ere lagun diezaguke guri, *euskararen kontra ez daudela esaten badute behin eta berriro, eman diezaiegun nahi adina aukera, behar den errespetuz eta begirunez, beren onginahia hori praktikara eraman ahal izan dezaten (...). Erdarari eta erdaldunei beldurrik, are gutxiago gorrotorik, izango ez dien euskaldun-jendea sortu behar dugula (...).*

Euskararen eta euskalgintzaren begietatik begiratuta, gure ustez, ez dugu behar beste saiakera egiten erdaldunengana hurbildu eta beraien bizipenak ezagutzeko. Zubiak eraiki beharra dago. Jon Maiak *Riomundo*²¹ liburuan agerian uzten du bi komunitateen artean dagoen inkomunikazioa. Euskararen gaitz guztiak leporatzeko baino ez gara akordatzeko erdal munduarekin.

Diru publikoz lagundutako herriko aldizkaria euskara hutsez dela-eta zenbat izan dira kexatu diren erdaldunak? Pentsatu al dugu inoiz beraien seme-alabak D ereduan matrikulatzen dituzten guraso horien esfortzuan? Ez genituzke halako jarrerak gutxietsi behar, garrantzitsua baita euskarari egiten dioten ekarpena.

Are okerragoa da euskara ikasle nahiz euskaldun berriek izaten duten errekonozimendu falta. Miresgarria da euskara ikasteko jende askok egin duen eta egiten ari den ahalegina. Inguruan begiratu besterik ez dago egunero-egunero euskaltegira zenbat jende joaten den ikusteko. Gu, euskaldunok, prest egongo al ginateke beste hizkuntza bat ikasteko garaian edo jarduera batean aritzeko garaian esfortzu bera egiteko?

²¹ "Riomundo", Jon Maia. Txalaparta 2005.

Zoritxarrez, oraindik ere euskara ikasita lortuko duten saria ez da guk nahiko genukeen bezain handia (nahiz eta guri kontrakoa komunikatzea komeni zaigun!). Guri dagokigu sarien *poltsa* hori handitzea, baina ez gaitezen engaina, oraindik ere lasai asko bizi daiteke Euskal Herrian erdaraz. Beraz, euskara ikasteko esfortzua egiten duten horiek gure errekonozimendu osoa merezi dute. Jon Maiak KORRIKArako egin zuen bideo hunkigarria datorkit burura.

2.4.8. Euskara exijitu

Askotan gertatzen zaigu euskaldun *patetikooi*, euskaraz egin nahi izan eta ezin izatea; gainera, gure borondate eta eskubideak etengabe ukatuta ikusteaz gain, erantzun txar bat jasotzeko arriskuari ere aurre egin behar izaten diogu.

Ezintasun horiek oso ondo islatzen ditu jarraian jaso dugun pasarteak. Txillardegiri Igeldoko taberna batean gertatutakoa da eta berau salatzeke gutun bat idatzi zuen *Irutxuloko Hitzara*²²:

Euskaldunok, honen luzaz eta honen lotsagabeki, ukatuak eta zafratuak izan ondoren, geure eskubideak eskatzeko ohitura ere galdu dugu. Eta larunbatean Donostian gertatu zitzaidana kondatuko dizuet. Udazkeneko festak direla-ta, Igeldoraino hurbildu naiz. Eta Behatokiaren aurrean dagoen Etxenagusi jatetxean sartu naiz Aita Orkolaga 47. Eta tortilla pintxo bat eta ardo bat eskatu dut.

- “¿Cómo?” galdetu dit zerbitzariak. Harriduraz bezala, edo sanskritoz hitzegin banio bezala. “No le entiendo” erantsi du.

Espainieraz eskatu diot horretara, eta makailu-bokata bat ekarri dit, baita ardoa ere; nahiz nik pintxoa eskatu...

- “¿Me puedes dar una Hoja de Reclamaciones? Sí, de esas que tenéis anunciadas ahí, encima de las botellas”.

Guztiz harrিতa begiratu dit. Barrura sartu, eta minutu batzuk pasata andere bat atera da:

- “Zertarako nahi duzu erreklamazio orria?” euskaraz galdetuz.

- “Protesta bat egiteko”.

- “Zergatik?”

- “Igeldoko taberna honetan euskaraz egiterik ez dagoelako”.

- “Ez da horregatik izango?”.

- “Horregatixek Euskal Herrian gaude”.

Gogoeta historiko bat egin dit: “Gu ere deserrian ibili ginen lehen, eta ongi hartuak izatea eskertzen genuen”.

- “Guk ez genuen euskara inposatzen; baina guri Igeldon inposatzen zaigu espainiera... Tira, emaidazu erreklamazio orri hori”.

Erreklamazio orria ez. Eta orduan festetako programa papertxo bat hartu, eta honelako zerbait idatzi dut: “Igeldo ez da Vegacepedilla de Corneja. Eta euskaraz egin nahi izan dut...”. Han utzi, eta atera egin naiz.

Esango nuke gero eta maizago gertatzen zaizkigula honelakoak. Donostiako Parte Zaharrean, esate baterako, ezin da inon euskaraz egin praktikan. Gero eta zerbitzari espainieradun gehiago dago bazter guztietan; eta, de facto, espainiera inposatzen zaigu behin eta berriz. Taberna ez da organismo publiko bat. Badakit. Ez dute obligaziorik, legez. Baina sintoma bat da. Adarra jotzen digute diximulurik batere gabe. Konturatu dira euskararen alorrean sekulako fartsa dagoela, eta hau Espainia dela goitik behera.

Uste dut badela garaia erantzuten hasteko. Salaketak eginez, edo taberna horiek bertan behera utzita, CRIDA katalanekoek egiten zuten bezala.

²² <http://egia.hitza.info/paperekoa/2007-10-31/p00002002/Salaketa.htm>

Euskaldun denok jakin behar genuke nonahi eta noiznahi euskaraz eskatzeko eta euskara exijitzeko eskubidea dugula, indarrean den legean hori jasota egon ala ez, eta eskubide horretaz baliatu beharko ginateke.

Kafe bat eskatu eta en castellano, por favor erantzun digun zerbitzariaren aurrean (halakoak ere entzun behar izaten ditugu eta!), ez genuke inolaz ere amore eman behar. Egia da portaera horrek tentsio egoeraren bat eragin dezakeela eta inork ez duela halakoak bizitzea gustuko. Halere, euskararen mesederako ez ezik, norberaren auto-estimurako ere garrantzitsua da ditugun balioak eta ideiak sendoak direla ikustea eta ikusaraztea.

Berriro ere erreferentzia egingo diegu TELP tailerrei, halako egoeretan nola jokatu ikasteko baliagarriak direla uste baitugu.

Tailer horietan, hainbat egoeraren sailkapena egiten da euskaraz egiteko zailtasunaren arabera: solaskidea, duen itxuragatik, euskalduna ez dela izango uste dugunean, solaskidea euskaraz ulertzeko gai bai baina hitz egiteko gai ez denean... Ondoren, egoera horietako bakoitzerako estrategia eta teknika batzuk proposatzen dira tailerretan. Helburua bikoitza da: guk hizkuntzaz aldatu beharrik ez izatea eta horrek gu ezeroso ez sentiaraztea.

Txillardegiren lekuan bageunde, pentsatu beharko genuke, batetik, ea nola lortu gure helburua (pintxoak eta ardoak eskatzea), horretarako euskarari uko egin gabe. Bestetik, tentsio egoera bat egon daitekeela aurreikusita, ea nola lortu gure portaerak karga emozionalik ez izatea (arrazoiak azaldu eta tabernaz aldatuta akaso?). Erreklamazio-orriak eskatzea eraginkorra izan daiteke ala ez, baina gure ustez, Txillardegi maisuak ez du lortu ez bata ez bestea, ez euskaraz eskatzea ez tabernatik haserretu gabe ateratzea.

3. IRAGARKI BAT EGITEKO URRATSAK

3.1. MINTZA SAIOAK SALTZERA GOAZ

Mariak 30 urte ditu. Erdiko klasekoa da. Ezkonduta dago. Bi ume ditu, 4 urteko semea eta 2 urteko neskoa. Euskaldun berria da Maria eta azken 4 urteetan Bilboko Justizia Jauregian egin du lan laguntzaile judizial moduan.

Bestalde, langile guztiei zuzenduta guk, euskara teknikariok, mintza saioak antolatu ditugu Bilboko Justizia Jauregian; saio horien helburua langileek eskaraz hitz egiteko erraztasuna hartzea, lotsa galtzea eta erabilerarako jauzia ematea da.

Mariak saio horietan izena ematea nahi genuke guk. *Mintza saioak* da guk Mariari saldu nahi diogun produktua. Kontsumoko produktuak saltzen dituztenek gutiziatzen duten bezalaxe gutiziatzen dugu guk ere Maria.

Halere, gurea ez da eskaintza bakarra, bere etxeko postontzian beste hainbat ikastarotako publizitatea ere jasotzen ari da Maria (pilates, sukaldaritza, euskal dantza, yoga, informatika...), eta lehiakide horiek denek gure helburu berbera dute: Mariak beraien ikastaroetan izena ematea.

Publizitatean *kanpaina*, *helburuak*, *estrategiak*, merkatu bat *hartu* edo posizio bat *okupatu* moduko termino militarrek erabiltzen dira etengabe, eta ez da ez kasualitatea, irabazi nahiaren, saldu nahiaren, botere nahiaren isla da. Gure etsaiaren zalditeria non dagoen jakitea komeni zaigu, non dagoen aliatuen artilleria edo non dagoen babestu gabeko hegala bat. Baina mapa interpretatu ez ezik, zer egin ere erabaki behar dugu. Datuak aztertu eta komeni zaizkigunak aukeratuko ditugu.

Horrela, Maria eta gainerako langileei zuzenduta, komunikazio kanpaina bat prestatzea erabaki dugu eta horretarako, powerpoint aurkezpen bat erabiltzea pentsatu dugu, 30 bat segundotan ikusi ahalko dena.

Bihar goizean Mariak ordenagailua piztu eta posta elektronikoa begiratzen duenean gure aurkezpena ikusiko du. 30 segundoko denbora zati txiki bat Mariaren bizitzan. Mariak dagoeneko bere bizitzan esna bizi izan dituen 30 segundoko 31.536.000 denbora zatietatik zergatik gogoratu beharko luke gurea? Gaurko egunak izan dituen segundo guztietatik zenbat gogoratzen ditugu guk? Gure bizitzan izan ditugun 30 segundoko denbora zatietatik zenbat gogoratzeko gai gara?

Gure zentzumenek hautematen dituzten gauza gehienetaz ez gara ohartu ere egiten. Ohartzen garen horietatik gutxi, oso gutxi dute memorian gordeta geratzeko pribilegioa. Erabat ezinezkoa da gure bizitzako momentu guztiak gogoratzea.

Halere, badira segundo batzuk, publizistek prestatzen dituztenak, pertsona baten memorian ez ezik, ehunka edo milaka memoriatan gordetzen direnak.

Hain da handia publizistek publizitatearen eraginkortasunean duten konfiantza, hilabeteak, ezen batzuetan urteak pasatzen baitituzte produktuei buruz zer esatea komeni den ikertzen, estrategiak gogotik prestatzen, hitzak fintzen, testuak berregiten... diru eta lan hori guztia ordenagailu edo telebistako pantailan, egunkarietan edo autobus baten alde batean segundo gutxi batzuetan distira egingo duen iragarki bat prestatzeko.

Zentzuzkoa al da gure iragarkiak funtzionatuko duela pentsatzea? Guk funtziona dezan gogor egingo dugu lan, baina Mariari ezin diogu eskatu eta aurrez ezin dugu jakin gure iragarkia begiratu, ulertu, bere egin eta gogoratuko duen.

3.2. IRAGARKI BAT PRESTATU AURREKO LANAK

3.2.1. Xede-taldea

Lehenik eta behin, gure xede-taldea zein den eta ze behar eta desio dituen ezagutzea komeni zaigu gure produktua, *mintza saioak*, horiek asetzeko gai den ala ez jakiteko. Has gaitezen, beraz, gure xede-taldea zein den zehazten.

Zein da gure iragarkiaren xede-taldea? Euskaldun zaharrak ala euskaldun berriak? Edo agian erdaldunak? Lanpostua jabetzan dutenak bakarrik ala baita bitarteko direnak ere? Nolakoa da xede-talde hori?

Beste edozein komunikazio estrategiatan bezala, mintza saioen komunikazio estrategia definitzerakoan ere helburua argi eta zehatz izatea bezain garrantzitsua da xede-taldea zein den ere ahalik eta argien eta zehatzen izatea. Demagun epaitegi edo organo jakin bateko langile erdaldunek osatzen dutela gure xede-taldea; horrela, asko zehaztuz gero, talde horren ezaugarriak, gustuak, iritziak, euskararekin izan dituzten bizipenak... ezagutzeko aukera gehiago izango dugu, eta ondorioz, baita arrakasta izateko ere.

Xede-taldearen ze informazio ezagutzea komeni zaigun zehazteko, zaila da arau orokor bat ematea. Kasu batzuetan adina ezagutzea komeniko zaigu, beste batzuetan ezkondua ala ezkongabea den, umerik duen, maila ekonomikoa, heziketa maila, nortasuna... Guk erabaki beharko dugu gure komunikazio helburua lortzeko ze informazio dugun beharrezko. Adibidez, *salduko* diogun etekina euskara ikasita bere seme-alabei etxeko lanekin lagundu ahaliko diela balitz, umerik duen eta ze adinetakoak diren jakitea komeni zaigu; kasu horretan, maila ekonomikoa jakiteak, adibidez, ez digu askorako balio.

Gure kasuan iragarkiaren xede-taldea Justizia Administrazioako langileak dira; halere, gure iragarkiak ez ditu langile denak helburu. Xede ditugun langileek euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izan behar dute, 5. edo 6. urratsaren bueltan, eta gehienezko maila zein den zehaztuta ez badago ere, ez da ohikoa izaten euskaldun zaharrek izena ematea.

Zer gehiago esan genezake xede-talde horretaz? Lehen ere aipatu ditugu administrazioako langileek izaten dituzten ezaugarri berezi batzuk (gizartean baino euskara ezagutza handiagoa, gizartean baino *antipatiko* gehiago, instituzioaren eta kokatuta dagoen ingurunearen artean desoreka soziolinguistikoa...) eta Justizia Administrazioako langileetan ere ezaugarri horiek denak ageri dira.

Jendaurrean trebatzearen inguruan *Jendaurrean hizlari* liburuan Joxerra Garziak dioenak guri ere balio digu euskara saltzeko komunikazio estrategiaz hitz egiteko: *Ahal baduzu jakizu aurrez zer-nolako audientzia* (gure kasuan xede-taldea) *izango duzun, zer dakiten zuk jorratu beharreko gaiez... ahal duzun guztia, ondo etorriko zaizu eta. Komunikazio kontuetan, hartzailea da beti gauza guztietan ardatz eta neurria. Hartzaileak gure diskurtsoa* (gure kasuan iragarkia) *nola jasoko duen, horrek baldintzatzen du gehien gure lana. Egoera nolako, diskurtsoa* (gure kasuan iragarkia) *halako.*

Bestalde, Wendell Smith-entzat, xede-taldea aukeratzeko hiru aukera daude:

1. Iragarkia merkatuaren zati handi bati, merkatu *osoari* dagoenean zuzenduta (*bereizi gabeko marketina*).
2. Azpimerkatu bakoitzari eskaintza desberdina egiten zaionean (*marketin bereizia*).
3. Merkatu zabal batean parte-hartze txikia eta ahula izan beharrean, azpimerkatu batean edo batzuetan parte-hartze sendoa lortzen saiatzen denean (*marketin kontzentratua*).

Beraz, goiko hiru aukeren artean *marketin kontzentratua* izango litzateke gurea, azpimerkatu bateko ahalik eta jende gehienak izena ematea baitugu guk helburu.

3.2.2. Helburua

Sakontze-egitasmo honen aurreko puntu batean ikusi ditugu zein izan daitezkeen komunikazioak euskararen normalizazioari egin diezazkiokeen bi ekarpen nagusiak: jendea euskarara erakartzea eta euskaraz dakitenak euskaraz bizi daitezzen lortzea.

Baina bi komunikazio helburu nagusi horien azpian komunikazio helburu zehatzagoak egoten dira, eta horiek zenbat eta gehiago zehaztu hobeto.

Adibidez, errotulazio informala bi hizkuntzatan jartzen ari garela eta, kontrako iritzirik batzuk entzuten hasi garenez, honako helburu zehatz hau duen iragarki bat egin genezake: *Erdaldunei ikustaraztea errotulazio informala bi hizkuntzatan egotea ona dela*; eta horrekin honako etekin hau lortuko dutela transmititu diezaikegu: *Errotuluak euskaraz ere ikustea baliagarria da euskarazko hitz berriak ikasteko*. Horrekin langileen kontrako jarrerak neutralizatzea da guk bilatzen dugun erantzuna.

Gure kasuan, gure helburua langileek mintza saioetan izena ematea denez, iragarkiari honako helburu hau jartzea pentsatu dugu: *Justizia Administrazioan lanean diharduten langileei guk antolatzen ditugun mintza saioekin lortuko duten etekina paregabea dela transmititzea* (gero zehaztuko dugu zein den guk aukeratutako etekin hori). Horrela, mintza saioetan izena emanda lortuko duten etekina ikusita, eskaintzen zaizkien ikastaro guztien artean bat aukeratu beharko duten unean, gurea aukeratzea da guk nahiko genukeena; hori da langileengan bilatzen dugun erantzuna.

3.2.3. Etekin edo UBP

Kontsumitzaileak iragarki batetik gauza bakarra gogoratu ohi du, erosketa arrazoi bat baino ez, bikaina den kontzeptu bakarra: UBP (*Unique Buying Proposition*).

Hasieran USP deitzen bazitzaion ere, marketin filosofiarekin koherenteak izateko publizista batzuk UBP erabiltzen hasi ziren; *Unique Buying Proposition*, eta ez *Unique Selling Proposition*. Beti irizpide berbera erabiltze aldera, guk ere aurrerantzean UBP deituko diogu.

Baina zer da UBP? Ze ezaugarri izan behar ditu? Jarraian jaso ditugun Reeves-en hiru puntuek zehaztasunez erantzuten diete galdera horiei:

1. Puntua: edozein iragarkik kontsumitzaileari zerbait eskaini behar dio. Hitz polit batzuk edo iragartzen ari garen produktuari egindako laudorioak baino zerbait gehiago izan behar da eskaintza hori. Edozein iragarkik honako hau adierazi behar dio kontsumitzaileari: *Produktu hau erosita abantaila hau lortzen da*. Gogoratzea komeni zaigu jendeak bere beharrak asetuko dituen *asetzaile* bat erosten duela (gaztelaniaz *satisfactor*), ez produktu bat, ez zerbitzu bat.

2. Puntua: gure eskaintza konpetentziak eskaini ezin dezakeen zerbait izan behar da, edo konpetentziari aipatzea bururatu ez zaiona. Gure markaren berezitasun bat izan daiteke edo publizitate kanpainak aurretik aipatu ez dutena.

3. Puntua: eskaintzak, hain indartsua izanik, ehunka pertsonarengan eragiteko eta kontsumitzaile berriak lortzeko gaitasuna izango du. Demagun detergente baten UBPa honako hau dela: *Detergente hau erabiliz gero, garbiketa bikaina lortuko duzu*. Non dago borrokarako behar genuen argudio sendo eta indartsua?

Unique hitzak esanahi hirukoitza da, eta Reeves-ek hirurekin jokatzeko abilezia izan zuen:

1. Bakarra, bat baino ez dago. 2. Berezia, aurretik konpetentziak erabili gabea da. 3. Paregabea, indartsua, aparta da.

UBPa erabakitzerakoan ohikoena hiru esanahi horietako baten bat ahaztea izaten da, eta izaten dira hirurak ahazten dituzten iragarkiak ere. Beraz, beti gogoan izatea komeni zaigu UBP edo *consumer benefit* horrek hiru ezaugarriak izan behar dituela.

Gerta daiteke gure produktuarenak eskusiboak diren etekin bat baino gehiago izatea, eta orduan nahikoa izango da gure ustez onena dena aukeratzea eta UBP izendatzea.

Gerta daiteke, baita ere, gure etekin guztiak konpetentziak dituen berberak izatea, eta orduan esplotatuta daudenak eta *birjina* direnak bereizi beharko ditugu, eta hortik aukeratuko dugu UBP izango dena.

Baina, gertatuko balitz –eta gertatzen da– esplotatu gabeko etekinik ez egotea? Orduan, bidea berregin eta etekin potentzialen bila jo beharko dugu.

Eta hori guztia jakinda, zein da guk antolatzen ditugun mintza saioen UBPa? Ze etekin lortzen du gure saioetan izena ematen duen langileak? Mintza saioetara etorrita euskararekin gozatzea iritsiko dela esango al diogu? Ezberdin izan eta sentitzeko aukera izango duela?... Horiek ere lortuko ditu agian, baina guk iragarkiarekin saltzea erabaki dugun etekin nagusia beste hau izango da: *Mintza saioetara etorri gero, lehenago aterako duzu hizkuntza-eskakizuna.*

Izan ere, euskara maila hobetzeko, eta beraz, hizkuntza-eskakizuna ateratzeko modu bakarra euskara erabiltzea baita, eta gure saioetara etortzen direnek euskara erabiltzeko aukera hori badute, langile batzuen kasuan beste inon ez dutena.

3.2.4. Sinesgarritasun euskarriak

Hartzaileak gure mezuan sinetsi dezan, nabarmentzera goazen etekin edo argudio nagusi horrek sinesgarria izan behar du berarentzat.

Argudio nagusi horri sinesgarritasuna emateko, eta mezua indartzeko, hautatu ditugun gainerako argudio edo indar motibatzaileak erabili ahaliko ditugu, edo bestela, etekina sinesgarri egiten duten bestelako datuak, ikerketak... bilatu beharko ditugu.

Adibidez, sinesgarritasun euskarri moduan egokia izan daiteke Txepetxen hizkuntzak ikasteko ibilbideen azalpena (ikus *motibatzaileak* atala), ezagutzaren ontzia goraino betetzea (eta horrela hizkuntza-eskakizuna ateratzea) ezinezkoa baita erabileraren ontzia hutsik izanda. Hizkuntzak erabiliz hitz berriak, esamolde berriak... ikasten dira, eta horrela, hizkuntzak erabiliz, ezagutza ere handitu egiten da.

3.2.5. Copy Strategy-a

Hortaz, xehetasunez jakin behar dugu zer esan behar dugun eta *zeini*. Aurreko puntuetan aipatutako jarraibide horiek denak *copy strategy*n egongo dira jasota.

Ohiko *copy strategy* batek honako puntu hauek izaten ditu:

- Kanpaina zuzenduta dagoen xede-taldearen definizioa (batzuek *target* deitzen dute, beste batzuek *prospect*...)
- Produktuak eskaintzen dituen etekin posibleetatik aukeratu dugun etekin nagusia (UBP, *consumer benefit, promise*...)

Bi puntu horiek beharrezkoak izaten dira. Hirugarren puntu bat ere egon ohi da, sinesgarritasun euskarriena, nahiz eta ez den nahitaezkoa izaten.

- Ebidentzia bat, sinesgarria, etekina zerk egiten duen posible azaltzen duena (*reason why, support*...)

*Copy strategy*a idazten hasita, honako eskema honen oso antzeko egitura izaten du: (*Xede-taldearen definizioa*) *konbentzitu* (*marka eta produktua*) *erosita* (*aukeratutako etekina*) *lortuko duela*.

Eta hirugarren puntua erabiliz gero, beste esaldi hau gehituko genuke: *Zeren (produktuak efektu hori zergatik sortzen duen deskribatzen da, edo benetan efektua sortzen dela erakusten duen ebidentzia).*

Beraz, gure kasuan *copy strategya* honelako zerbait izango litzateke: *Euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila duten Bilboko Justizia Jauregiko langileak konbentzitu, mintza saioetan izena emanaz gero lehenago aterako dutela hizkuntza-eskakizuna, zeren euskara erabiliz ezagutza maila handitzeko eta beraz, hizkuntza-eskakizuna ateratzeko aukerak handitu egiten baitira.*

3.3. IRAGARKIA EGITERA GOAZ

Garuna da hardwarea eta iragarkia softwarea

Dagoeneko definituta dugu mintza saioekin erlazionatu nahi dugun mezua (*mintza saioetara etorri gero, lehenago aterako duzu hizkuntza-eskakizuna*). Mezu hori lan asko eta intuizio handiz lortutakoa da. Berdin zaigu *kontsumitzailearentzat etekina* deitu edo USP (*Unique Selling Proposition*) edo UBP (*Unique Buying Proposition*). Baina mezu hori da garrantzitsuena, gure produktua saltzea lortuko duena.

Baina UBPa definituta, orain hasten dira komeriak, guk egindako iragarkiaren bidez paperean idatzita dugun UBP hori ehunka garunetan grabatzea nahi baikenuke.

Nola ordea? Hasi orduko zailtasunez betetako baso batekin egiten dugu topo: irteera gabeko pasadizoak, ezabatutako oinatzak... eta halere, jakin badakigu badela bidexka bat azpijoko eta engainuei izkina egin eta gure helmugara eramango gaituena, UBPa memoriaraino eraman eta bertan grabatuta utziko duena. Bidexka hori da topatu behar duguna, baso hori zeharkatu beste aukerarik ez baitugu, hori baita gure iragarkiaren helburua.

Horretarako, lehenik eta behin, UBPa hitz, soinu edo irudi bihurtu beharko dugu, gero euskarri batean ala bestean ezarri (euskarri informatikoa, magnetikoa, papera...) eta bukatzeko, gure xede-taldeak jaso dezan kanal egokienetatik bidali (emailaz, horma batean itsatsita, telebistaren bidez...). Gure kasuan, UBPa irudi eta hitz bihurtu eta powerpoint euskarri bat sortzea erabaki dugu, gero email bidez langile denei bidaliko dieguna.

Horrela, espero dugu iragarkia jasoko duen hartzailearen zentzumenetan zirrara eragitea eta ez uztea pasatzen, ez uztea pasatzen eta ulertzea, ulertzea eta memorian programatzea. Era horretan lortuko dugu gaur gure paperean idatzita dagoen ideia bihar ehunka memoriatan egotea.

Gure egitekoa, hemendik aurrera, memoria nola programatu ikastea izango da; garuna izango da guk maneiatzen ikasi beharreko hardwarea. Horretarako, fabrikatzailearen eskuliburua bilatu eta irakurri egingo dugu. Ea asmatzen dugun zein den martxan jartzeko sakatu beharreko tekla.

Helburu dugun garuna hardwarea baldin bada, iragarkia softwarea da. Iragarkia programa bat da, jakin baitakigu memoria programatu egin daitekeela.

Programa batean bezala, iragarki batean ere ezin da egon elementurik horren arabera jarrita ez dagoenik. Datu arbitrario bat, toki desegokian jarritako anekdota bat, gehiegikeria bat ez ezik arrisku bat ere izan daiteke, osagarri denak mezuaren ideia nagusia desbideratu, ilundu edo memorizatzea eragotzi baitezake. Mamia eta azala ondo neurtutako orekan egoten dira iragarki guztietan, eta ez dago ezer ez faltan ez soberan.

Halaber, badakigu ordenagailua behartuta dagoela sartzen zaion guztia gordetzen, eta garuna ere bai, baina dokumentu bat gordetzerakoan puntu bat joan behar den tokian koma bat jartzen badugu ordenagailuak ez du eragiketa onartuko. Gizakion *ordenagailuan* berdin, ez badugu bere exijentzien arabera jokatzeko ez dugu gure helburua lortuko.

Komunikazioan parte hartzen duten alderdiak

Hauek dira marketin liburu gehienek erabiltzen dituzten komunikazio-katearen atalak:

Igorlea: mezua bidaltzen duena.

Mezua: komunikatzea nahi den ideia edo kontzeptua.

Kodifikazioa: pentsamenduari forma sinbolikoa ematean oinarritzen den prozesua.

Komunikabidea (zentzu zabalenean): mezua igorletik hartzailearengana bidaltzeko erabilitako komunikazio kanala.

Dekodifikazioa: igorleak bidalitako sinboloei esanahi bat emateko hartzailearengan gertatzen den prozesua.

Hartzailea: mezua jasotzen duena.

Eta honako hauek dira komunikazio prozesuaren baitan aurki ditzakegun beste kontzeptu batzuk:

Erantzuna: mezua jaso ondoren hartzaileak izandako erreakzio multzoa.

Feedbacka: hartzailearen erantzunetik igorleari iristen zaion zatia.

Zarata: komunikazio prozesuan dauden etenaldi edo distortsioak, mezua desitxuratuko dutenak.

Igorlea

Ezer baino lehen saia gaitezen kontzeptuak bereizten. Gu iragarleak gara, iragarkia egitea erabaki dugunak. Transmittitu beharreko mezua kodifikatuz iragarkia egin eta bidaltzeaz arduratuko direnak, berriz, publizista sortzaileak dira. *Igorle* azken horiei deituko diegu, hau da, publizista sortzaileei.

Halere, gero errealitatea bestelakoa izaten da, askotan iragarkia egitea erabaki, iragarkia egin eta iragarkia bidali pertsona berberak egiten baitugu: guk. Gure kasuan ere, hornitzaile bat kontratatzeko aukerarik ez badugu behintzat, gurea izango da iragarkiaren ardura osoa.

Igorleak mezua kodifikatzeko trebetasun batzuk izan behar ditu. Adibidez, idatzi egin behar badu, hiztegia, ortografia eta gramatika menperatu beharko ditu. Hitz egin behar badu, berriz, hiztegia, ahoskera eta keinu bidez adierazteko modua dira menperatu beharko dituenak.

Gure kasuan, mintza saioen berri emateko aurkezpen bat prestatu behar duenez, gutxienez diseinurako eta idatzizko komunikaziorako trebetasunak izan beharko ditu igorleak.

Halaber, oso garrantzitsua izaten den igorlearen beste ezaugarrietako bat jarrera da:

1. *Norbere buruarekiko*. Igorleak bere buruan, bere izateko eran, arrakastan, duen konfiantzak baldintzatu egingo du iragarkiarekin lortuko den emaitza. Garrantzi gutxiko kontua dela dirudien arren, gero iragarkian igarri egiten da eta bere eragina izaten du.

2. *Gaiarekiko jarrera*. Igorleari ikaragarri gustatzen zaizkio iragartzen dituen produktuak. Eta hala ez bada, gaizki gabilta. Ez bakarrik zailagoa delako iragarki edo kanpaina on bat egitea, baizik eta mezuetan hori ere igarri egiten delako.

3. *Hartzailearekiko jarrera*. Ona den edozein komunikatzailerengan jendearekiko errespetua, afektua, kuriositatea topatuko ditugu. Baliteke bere emaztearekin edo seme-alabekin arazoak edukitzea edo lagunekin zakarra izatea, baina gizateria ulertu eta maitatu egiten ditu.

Bukatzeko, badira igorleak kontuan izan beharreko beste pare bat kontu. Bata, ezagutza mailarena da. Nahita ere ezin da ondo komunikatu ezagutzen edo ulertzen ez dena.

Bestea, igorleak ez du pentsatu behar bere xede-taldea bera modukoa denik eta bere irizpide eta balio berberak dituenik. Igorlea bere xede-taldearen lekuan jartzen eta bere mentalitatea nolakoa den ulertzen saiatu behar da. Aurreko atal batean ere sakondu dugu xede-taldea ondo ezagutzeak duen garrantzian.

Kodifikazioa

Mezua kodifikatzeko unera iritsi gara. Kanpainan parte hartzen duten espezialista (diseinugile, erredaktore, argazkilari...) guztien helburua mezua kodifikatzea izango da; horretarako, kode bakoitzak dituen arauak jarraituz, zeinuak aukeratu eta mezua kodifikatuko dute.

Hitz egiterakoan pertsona batzuei beste batzuei baino hobeto ulertzen zaie. Beste batzuk bereziki trebeak dira idazten, margotzen edo filmatzen; hau da, zeinuen erabilerak abilezia eta teknika batzuk eskatzen ditu.

Hayakawa: *Sinboloak eta sinbolizatzen denak ez dute zertan guztiz bat etorri; adibidez, "gose izan" da sinbolizatzen dena eta modu askotan esan daiteke, eta horrek erakusten digu ez duela bat berarekin ere egiazko erlaziorik: "Tengo hambre", "J'ai faim", "Es hungert mich", "Ho appetito", "Hara ga hetta", eta abar. Horrek ondorio batera garamatza: sinboloa ez da sinbolizatzen dena, hitzek ez dute inoiz dena esaten.*

Sinboloaren eta benetako errealitatearen artean dagoen zehaztasun gabezia hori da interpretaziorako, kodifikaziorako, aukera eskainiko diguna. Sormena sinboloen zehaztasun gabezia horri etekina ateratzean datza.

Momentuz, jar dezagun gure arreta komunikazio arloetako batean: hizkuntzan. Hizkuntza bakoitza pentsatzeko era bat da. Eta horrek nabarmen zailtzen die publizistei *global advertising* deritzana, zehaztasun osoz definitutako UBP baten ideia itzultzea, hitzak fisikoki itzultzea baino gauza askoz konplexuagoa baita. Ondo dakite hori Europako publizitate-agentziek nahiz estatubatuarrek, xede-taldean beltzak, judutarrak edo hispanoak egon, UBPa bera ere erabat berregin behar izaten baitute askotan.

Bukatzeko, eta labur-labur bada ere, azal ditzagun zeintzuk diren iragarki bat kodifikatzerakoan erabaki beharrekoak: mezuaren kodea (asko daude hizkuntzetan, musikan, pinturan, dantzan, irratan, zinean, telebistan...), mezuaren edukia eta mezuaren egitura.

Komunikazio kanala

Hartzaileak mezua ikusi eta entzun dezan, eta agian baita ukitu, dastatu eta usaindu ere, igorleak mezua ze kanaletatik bidali erabaki beharko du.

Kanala, psikologikoki, zentzumenak direla esan genezake, mezua horien bidez dekodifikatuko baitu hartzaileak.

Bestalde, beste hainbat kanal mota dago: naturalak (hizketa, keinuak...) eta artifizialak (gutuna, telefonoa, egunkaria...).

Kanal mota bakoitzak modu desberdinean kodifikatzen du errealitatea eta eragin ikaragarria da komunikatutako mezuan. Komunikazio kanala ez da bakarrik gutuna daraman gutunazala; mezuaren beraren zati garrantzitsu bat ere bada Edmund Carpenter-ek idatzi zuenez.

Egia da, eta esperientziak hala erakutsi digu, komunikazio kanalak eragin handia duela mezuan. Ez gaude modu berean harbera hitzaldi bat auzoko eskola batean entzuten dugunean edo Merkataritza Ganberan denean.

Komunikazioan eraginkorrak izan nahi badugu, kanalak mezuari erantzen dion mezu gehigarri hori oso kontuan hartu beharko dugu.

Gure kasuan, egia da eta oso kontziente gara emaila ez dela kanalik idealena; badakigu beste jende askok erabiltzen duen eta asko esplotatuta dagoen kanala dela. Halere, langile guztiengana iristeko ditugun baliabide mugatuak eta beste komunikazio biderik erabiltzeko aukerarik ez izateak eraman gaituzte emaila aukeratzera. Alferrik da atsekabetzea, izan ditzagun presente zein diren gure kanalaren mugak eta saia gaitzen eskaintzen dituen aukerak ahalik eta hobekien aprobetxatzen.

Iragarkia eta hartzailea aurrez aurre

Une erabakigarrienera iritsi gara. Informazioak *kanal tekniko* batetik *kanal fisiologiko* batera jauzi egingo duen unera; hau da, informazioak ordenagailutik (edo telebista, irrati, prentsa, bozgorailu, gutunazal, aldizkari, kaleko publizitate-panel edo dena delakotik) gure hartzailearen (bere lanlekuan eserita dagoen Bilboko Justizia Jauregiko langilearen) zentzumen-erzeptoreetara jauzi egingo duen unera.

Kontaktuak segundo gutxi batzuk baino ez ditu iraungo eta segundo horietan erabakiko da gure iragarkiak arrakasta izango duen ala ez.

Gertura gaitezen hartzailearengana eta ikus dezagun bere hardwarea nolakoa den. Lehen inpresioa desengainuzkoa da. Garuna gauza zoragarriak egiteko gai da, baina gure mezuak duen informazioari sarbidea emateko gaitasun oso mugatua du.

Demaseko publizitate kanpaina antola dezakegu eta azkenean konturatzen gara garuna ez dela gai segundoko dozena bat bit, gehienez ere 16 bit barneratzeko! Eta hori oso-oso gutxi da...

Bit (binary digit) informazioaren neurketa-unitatea da, informazio zati bat. 16 bit/segundo. Hemendik aurrera esango dugun guztia datu horrek baldintzatuko digu eta asmatu beharko duguna da ea ate estu horietan barrena nola egingo duen aurrera gure mezuak.

Memoria iraunkorrera iritsitakoan, bestalde, lekua berriro ere oso-oso handia da. Iragarki guztiak eta askoz gauza gehiago sartzen dira han. Hainbat autoreren iritziz, gure garunak 100.000.000 bit informazio inguru gordetzeko gaitasuna du.

Orduan, logikoa da publizistek honako galdera honen erantzuna jakin nahi izatea: zenbat bit ditu gure mezuak? Egia esan, ez dugu inon topatu hori neurtzen lagunduko digun formularik, baina denak bat datoz 12 edo 16 bit ez direla ezer eta ia konturatu gabe gainditzen dela muga hori.

Zirrikitu: epe motzeko memoria

Hasieratik argi izan behar dugu ez goazela memoria batekin lan egitera, hiru memoriarekin baizik: *Epe motzeko memoria* edo *une bateko memoria*, *iraupen ertaineko memoria*, eta *epe luzeko memoria* edo *memoria iraunkorra*. Azken hori da, hain zuzen ere, jasotako datuak betiko edo denbora luzerako gordeko dituen. Publizitatean memoria iraunkorra izaten da azken helburua.

Epe motzeko memoriaren egitekoa ulertzen laguntzeko imajina dezagun tren batean goazela. Ezin dugu jakin trena ze parajetatik ari den pasatzen bagoia itxita baitago. Halere, ondoko ilarakoen leihoa guztiz itxi gabe dago, tarte estu-estu bat du irekita, eta zirrikitu horretatik inguruko paisaia *zatitxo* batzuk ikus ditzakegu: orain zelaia, gero eliza bat, gero etxe bat, gero beste etxe bat... eta horrela, paisaia nolakoa den irudika dezakegu gutxi gorabehera.

Treneko zirrikitu hori gure zentzumenek une batean jasotzen dituzten datuen baliokidea da. Adibidez, irakurtzen bageunde datu hori e letra izan zitekeen. Gure buruak datu hori denbora tarte batez atxikitze gaitasunik ez balu, gero datorren / letrak, nahiz eta gure buruak errekonozitu, ez luke esanahirik izango, aurretik jaso duen letra ahaztuta izango baikenuke. Horrela, ezingo genuke inoiz esanahiren bat duen hitzik osatu.

Horregatik du gure hardwareak aldi baterako memoria, eta / letra irakurritakoan, aurretik e bat eta / bat ere irakurri ditugula gogoraraziko digu. Ondoren z bat eta gero a bat irakurriko bagenitu, esanahia duen hitz bat osatuko genuke: eliza.

Gure garunak zeinu edo letra horien arteko erlazioa bilatu du, zeinu bakar bat, hitz bat, osatzeko, *superzeinu* deitu ahal diezaiokeguna. Horrek nabarmen errazten dizkio gauzak garunari, alfabetoko letra bakoitza bilatzen jardun beharrean hitz bakarraren esanahia bilatu behar baitu orain.

Hori da, hain zuzen ere, leihotik begiratzekoan gertatu zitzaiguna; elizaz gain etxe bat, beste etxe bat, eta beste bat ikusi genituen eta orduan konturatu ginen: *Hara, herri bat da!* Orduan, zeinu bakoitza deszifratzeari utzi genion eta superzeinu handiago batekin geratu ginen: *Herria*.

Eta posible al da *herria* hitza superzeinu handiago batean sartzea? Eta garuna superzeinua aztertzen hasi zen eta ikusi zuen bat zetorrela aurreko esperientzia bateko superzeinuarekin. Beraz, ez genuen herri berri hori interpretatzen bit gehiago kontsumitzeko beharrik! Gauza berri eta arraro bakarra, memoria iraunkorrean aurretik erreferentziarik ez zuena, kanpandorrearen forma originala zen. Kanpandorre hori zen mezu osoko informazio bakarra, dekodifikazio kosturen bat eskatzen zuen datu bakarra.

Epe luzeko memoria helburu

William James psikologoaren hitzetan *memoriaren egiteko nagusia ahaztea da, bestela iraganak gainezka egingo liguke*. Ez da ez hori gure iragarkiak espero zuen harrera beroa.

Hartzailea, era guztietako trikimailuen bidez, gure mezua epe luzeko memorian ez gordetzen saiatuko da. Mezua jasotzen hasi ahala baztertu egingo du, edo bere artxiboetan gure informazioarekin bat datorren informazioa bilatuko du *hau banekien, ez da beharrezkoa berriro memorizatzea* esateko.

Baina, halere, egon behar da moduren bat komunikatzea nahi dugun ideia hori hartzailearen memorian sartu eta bertan gordeta uzteko.

Horretarako, badira arau batzuk iragarkia egiterakoan kontuan izan beharrekoak eta horietako bat memorizatzea hartzaileak nahi izan gabe gertatu behar dela da. Ezin dugu espero gure hartzailea ordenagailu aurrean jartzen denean *ea zenbat iragarki ikasten ditudan gaur* pentsatzen egotea, eta berdin bere etxean telebista pizten edo egunkaria irekitzen edo web orri batetik beste batera nabigatzen ari denean ere. Gure iragarkiak, email bidez bidalitako aurkezpenak gure kasuan, ziurrenik egiten ari den lana etetea eragingo dio hartzaileari. Iragarkiak, ia beti, gogoz kontra jasotzen dira.

Halaber, jakin badakigu iragarki bat prestatzerakoan topatuko dugun lehen arazoa epe motzeko memoriaren edukiera mugatua dela. Ikasleei emandako azalpenetan esaldiak luzeegiak direnean, esaldia bukatzerako ikasleek esaldiaren hasiera ahaztuta izaten dutela esaten zuen Whitehead-ek; begien bistakoa denez, horrek ulermena zailtzen du.

Hortaz, publizisten lanaren zati handi bat iragarkietan sinplifikazioa lortzera egongo da zuzendua.

Urrats guztiak ulertzeko, eskema moduan, Donald Norman-ek egindako sailkapen hau erabiliko dugu:

- 1. Arreta:** seinale eskaintza zabal batetik estimulu gutxi batzuetan erreparatzen dugu.
- 2. Zentzumenen informazio bilketa (ZIB):** organo sentsorialetan eta garuneko behealdeko alderdietan gertatzen da.
- 3. Epe motzeko memoria (EMM):** une bateko laneko memoria.
- 4. Transferentzia eta sendotzea:** epe motzeko memorian (EMM) egon den materiala aukeratu eta landu ondoren, kopia eta epe luzeko memorian (ELM) gordetzen da.
- 5. Berreskuratzea:** epe luzeko memorian gordeta dagoen oroitzapena bilatzean datza.

Gure iragarkiak etapa horietako batean kale egiten badu, iragarki guztiak egingo du kale. Gogoratu beharreko UBPa ez badago artxibatuta egon beharko litzatekeen lekuan, gure kontsumitzaileei ez zaie agertuko behar dutenean, mintza saio eta beste ikastaro batzuen artean aukeratu behar duten une erabakigarrian. Halaber, ELMn memorizatutako mezu horrek aurretik EMMren *iragazkia* pasatu behar zuen. Horretarako, aurretik iragarkiak

zentzumenek hautemateko ezaugarriak eduki behar zituen eta zentzumenek guri interesatzen zitzaizkigun datuak atxiki behar zituzten eta ez bestiak.

Nola erakarri arreta

Beraz, ezer baino lehen, arreta. Hartzaileak ikusi gabe begiratzen badu edo kasu handirik egin gabe entzuten badu kontu honek ez baitu etorkizun handirik. Hartzailea ez dago guk zer esango zain eta, beraz, bere arreta erakarri behar dugu.

Baina nola lortzen da arreta erakartzea? Normanek azaltzen duenez, iragarkian beste elementuen ondoan homogeneousa ez den elementu isolatu bat jarrita, langileak ordenagailuaren aurrean (edo telebistaren aurrean, egunkaria irakurtzen, irratia entzuten...) dagoenean espero ez duen elementu bat jasota, hain zuzen ere. Horri *ustekabea* deitzen zaio.

Ustekabea sortzen duen elementuak, berria izanik, informazio bit asko kontsumituko ditu, baina dituen ezaugarriengatik ate guztiak zeharkatuko ditu eta hartzaileak etorkizunean gogoratu egingo du ziurrenik.

Baina kontuz, iragarkiaren hartzaileak ikasteko duen denbora eta bit kontsumoa mugatua da, gogoratu beharreko gauzen artean banatu beharko duena. Arreta erakartzeko darabilgun edozein elementuk, prozesatzerakoan, dagokiona baino denbora gehiago behar izan dezake. Horrela, hobeto gogoratuko da, baina prozesatze denbora osoa konstantea denez, beste elementu batzuei *lapurtuko* die denbora, agian gure mezuaren benetako informazioari.

Era horretako iragarkiak dira produktuaren abantailak modu lineal eta deskribatzaile batean azaltzen dituztenak, eta arreta erakartzeko hori nahikoa ez dela ikusita, iragarkiei artifizialki *gimmick* bat gehitzen diete arreta erakartzeko trikimailu moduan. Egia esan, *gimmick* hori zenbat eta eraginkorrago, iragarkiarentzat orduan eta kaltegarriago, ziurrenik etorkizunean gogoratuko dena *gimmicka* izango baita eta ez mezuaren bidez adierazi nahi zen produktuaren etekina.

Hortaz, kontuz zerekin gabiltzan arreta erakartzen! Iragarkietan jartzea komeni zaigun elementu hori hartzailearengana iristeko giltza izango da, baina, aldi berean, gure mezuaren beste datu garrantzitsuei sarbidea itxi diezaieke.

Beraz, izan gaitezen probokatzaile, baina ziurta dezagun probokazioa gure produktuak sortzen duela. Bernabach-en hitzetan, oker gabiltza arreta erakartzeko gizon bat buruz behera eskegita jartzen badugu, gure produktuak poltsikoetatik gauzak erortzea eragozten duela erakusteko ez bada behinik behin.

Produktuaren etekina eta arreta erakarri behar duen elementua elkarrekin joan behar dira, elementu bakarrean biak. Arreta erakartzen duen elementua etorkizunean ondo gogoratuko denez, gure produktuaren etekinarekin lotzeko aprobetxatu behar dugu; hau da, iragarki batean harrigarriena eta ikusgarriena denak, aldi berean *copy strategy*an jasota dagoen gure produktuaren etekina edo UBPa adierazi behar du. Zaila al da hori? Iragarki bat sortzerakoan dagoen gauzarik zailena eta garrantzitsuenagia.

Komunikabidearen arabera iragarkiak

Publizistek erabiltzen duten komunikabideen sailkapenetako bat gogoratuko dugu hemen:

A) Denbora aldagaia erabakigarria duten komunikabideak: irratia, telebista... Horietan mezua aurrez zehaztutako segida baten arabera agertuko da. Iragarkiaren denbora aurrez zehaztuta egon ohi da eta nahiko laburra izaten da. Komunikabide horietan bit/segundo bektorea erabakigarria da.

B) Denbora aldagaia anibalentea duten komunikabideak: prentsa, aldizkariak, liburuxkak, saltokietako materiala... Horiek idatzizko komunikabideak izaten dira. Denbora

anbibalentea dela diogunean esan nahi dugu hartzailea iragarkiaren aurrean zenbat denboran egongo den ez dakigula aurretik.

Bigarren multzoko komunikabide horietan lehen inpaktua oso azkarra eta bizia izan behar da; hartzailea begiratzen geldituko da ala ez, eta erabaki hori askotan momentuan bertan hartzen da. Bestalde, hartzaileak gure iragarkia begiratzen geratzea erabakiz gero, denbora mugagabez gera daiteke ondoren begiratzen. Hortaz, bistan izaten diren datuek berehala erakarri behar dute hartzailearen arreta.

Dituen ezaugarriak ikusita, guk email bidez bidaliko dugun aurkezpena bigarren talde horretan sartuko litzateke.

“Banpiroak” eta beste

Banpiroak. Roser Reeves-ek idatzi zuen banpiroek itxura desberdinak har ditzaketela: produktuaren ontzia eusten ari den eskuko bitxia; iragartzen ari garen autoko leihotik burua ateratzen duen txakurra edo gure aurkezpenaren albo batean jarri dugun argazki bat. Gerta liteke, eta zorritzarrez askotan hala gertatzen da, banpiroa ez etortzea bat gure produktua saltzeko argudioetako bat berarekin ere. Kontu handia izan behar da bigarren mailako argudioak sartzearekin. Gerta liteke horietakoren batek gure UBPa ahultzea.

Era berean, kontuan izan behar dugu mezu baten ideia nagusiaren ondoren ideia berri eta deigarri bat jartzen badugu, bigarren zati horrek lehen zatia prozesaketa eten dezakeela. Bestalde, oso deigarria den kontzeptu bat azaltzen ari bagara, hartzailearen garuna okupatuta egongo da, eta alfer-alferrik saiaturako gara gure ideia nagusia orduan sartzen; segundo batzuk itxaron beharko dugu aurreko prozesaketa bukatu eta gure hartzailearen burua libre egon arte.

Errepikapenak eta “chunking”a

Gogora dezagun orain arte zer gertatu den. Iragarkia jaso bezain pronto datuen *kontrola* pasatu behar izan da, urrats gupidagabea izaten dena. Erabaki egin behar da, aukeratu ala baztertu: *Hau interesgarria izan daiteke, hau ahaztu...* Erabakia di-da hartzen da, eta gure iragarkiak nahitaez gainditu egin behar du lehen proba hori.

Lehen proba pasatuta, EMM daukagu. Lehen esan dugun bezala, EMM gai da datu gutxi batzuk segundo gutxi batzuetan mantentzeko.

Halaber, jarduera handiko uneetan arreta gehien merezi duten datu horiek denbora gehiagorik mantentzeko gaitasuna ere badu EMMk, epe luzeko memoriara pasatu ala ez erabakia atzeratzeko, alegia. Datu horiek babesteko sistemari *errepikapenak* deituko diogu. Autore batzuen ustez, errepikapen akustikoak izaten dira; Aristotelesekin, adibidez, izen bat gogoratzeko askotan soinuaz antzekoa den zerbait esaten dugula gogorarazten digu. EMMn datuak errepikatzea, datuak segundo batzuetan mantentzen laguntzeaz gain, datuak antolatze ere baliagarria izaten da.

Bestetik, baina informazioa EMMn atxikitzearekin jarraituz, Fergus Clark-ek egin zuen esperimendu bat gogoratuko dugu. Esperimendu horretan pertsona batzuei hitz zerrenda bat irakurtzen zitzaion. Irakurri eta berehala galdetuz gero, batez ere azken hitza gogoratzen zuten (berehalakotasun efektua), ia %100ek gogoratu ere. Aldiz, minutu batzuk pasatuta, hau da, dagoeneko epe motzeko memoria lanean ez zegoenean galdetuz gero, oroitzapena %10era jaisten zen.

Horrek argi azaltzen digu zein erraztasunarekin gogoraraztea nahi dugun ideia iragarkiaren bukaeran jartzen saiatzen garenean. Ez dago frogatuta marka, produktu edo dena delakoa adierazten duen hitzak iragarkian duen kokapenak gogoraraztea errazten duenik.

Azkenik, *chunking*a daukagu.

Pentsatu-buruz-dut-behar-horri idatziko bagenu bost hitz, bost datu, erabili beharko genituzke. Baina ordenatu eta *horri buruz pentsatu behar dut* idatziko bagenu, informazio guztia datu bakarrean sartuta izango genuke. Gure ahalegina, beraz, datuak hitz, soinu edo irudi pakete txikietan ematea izango da, gero modu globalean asimila daitezten.

Beste aukera bat esanahi argi eta zehatza duten hitz, soinu edo irudiak aukeratzea izango da, aurrefabrikaturiko superzeinuak, horiek informazio bit gutxi kontsumituko baitute.

Zeinu eta superzeinu horiek epe motzeko memoriara pasatuko dira, eta *chunk* izeneko unitate konplexuagoak osatuz taldekatuko dira. Kodifikatzerakoan datuak *chunking* hori errazteko eran antolatzea da erabili dezakegun beste trikimailuetako bat.

George Millar-en hitzetan, EMMren edukiera mugatua izanik, muga zein den zehazterakoan *chunk* kopurua hartu behar da kontuan eta ez hainbeste hitzez emandako informazio kopurua.

Inferentziak: esaten ez diren gauzak

Gure ohiko mintza jardunean, adierazi nahi dugunaren zati bat baino ez dugu adierazten, beste zatia gure solaskideak dagoeneko ezaguna duela uste dugunez *jan* egiten baitugu. Kanean elkarriketa bat grabatuko bagenu harritu egingo gintuzke bata bestearen jarduna nola eteten duen ikusteak, azalpenetan dagoen zehaztasun faltak... eta hala ere, solaskideek ez dute arazorik elkar ulertzeko. Komunikatzerakoan esan gabe utzi ditugun kontu horiei deitzen diegu *inferentziak*.

Walter Kintsch-ek inferentziek gure lanari eskaintzen dizkioten aukeren berri ematen digu. Sarritan gertatzen da pertsona bati historia bat irakurtzeko eskatzea eta gero zer gogoratzen duen galdetu eta erantzuna ez etortzea bat irakurgaiarekin. Kintschek Bibliako bi pertsonaiari buruzko istorio ezagunak eman zizkien pertsona batzuei. Testua irakurri eta handik 24 ordura istorio horri buruz ze gogoratzen zuten galdetuta, gogoratzen zuten horretan ez zekiten zer zen lehenik zekitena eta zer zen aurreko egunean irakurritakoa. Gainera, testuari elementuak gehitze hori, gogoratzerakoan ez ezik, irakurtzerakoan ere egiten da. Irakurleek, sarritan, testuan jasota ez dauden gauzak *inferitzen* dituzte.

Erredundantzia Vs Informazioa

Gure iragarkiaren arrakastaren edo porrotaren faktore erabakigarrietako bat hartzailleek eta igorleek komunean dituzten aurreko ezagutzak dira, hau da, batzuentzat zein besteentzat ezagunak diren gauzak.

Pertsona batek bere portaera aldatuko du, baldin eta beste toki edo pertsona batengandik ezagutzen ez duen zerbait jasotzen badu. Horregatik, portaera aldarazteko ezinbestekoa da gure mezuak zerbait berria eranstea.

Mezuaren alderdi berri hori da, hain zuzen ere, *informazioa* deituko dioguna. Abraham Moles-en hitzetan *informazioa mezu baten originaltasun neurria da*.

Erredundantzia eta informazioa kontzeptu kontrajarriak dira, baina mezu batean biak daude. Gero eta erredundantzia gehiago orduan eta informazio gutxiago. Eta hori da publizista guztiek izaten duten zalantza: *Zenbat erredundantzia eta zenbat informazio jarri behar dugu iragarki batean?*

Demagun, oso erredundantea den iragarki bat egiten dugula, hau da, hartzailari ezagunak zaizkion beste iragarki, kontzeptu, irudi edo esaldi batzuk gogorarazten dizkiola. %100ean bagara erredundanteak, hartzailleak oso bit gutxi kontsumituko ditu, baina informazio berririk ere ez du jasoko. Dagoeneko memorian duen zerbait errepikatzen ari garenez, ez zaio interesatzen eta jaso bezain pronto baztertu egingo du.

Orduan, beste ondorio honetara irits gitezke: ahalik eta erredundantzia gutxien eta informazio gehien jartzea komeni zaigula. Baina ez da hori ere kontua. Dena berria duen

iragarki batean informazioa, teorikoki, maximoa izango da, baina ulergaitza, aurreikusi ezin horrek di-da batean agortzen baititu bit denak.

Beraz, atera ditzagun kontuak. Badakigu, batetik, ezin direla segundoko 16 bit baino gehiago sartu; eta, bestetik, aldi baterako memoria ere ez dela oso eskuzabala, ezin baitu 3 edo 4 segundotan 50 edo 60 bit inguruko muga hori gainditu. Hortaz, ez dadila dena erredundantzia izan, eta ezta dena informazioa ere. Ez dadila dena ezaguna izan, eta ezta dena berria ere.

Edukian ala forman, baina argi dago iragarki batean gauza berriak egon behar direla, baina horiek ekonomizatu beharra daukagu, mezuaren pertzepzioak hartzaileari esfortzu minimoa (ezinbestekoa!) eska diezaion.

Gure mintza saio eskaintza ez da langileentzat gauza berria, aurreko urteetan egin dugun eskaintza berbera da, produktua ezaguna dute langileek, material erredundantea da.

Halere, UBPa berria da. Azken urteetan gure iragarkiak informazioa ematera mugatu dira eta ez da iragarkia gure produktuaren etekinaren inguruan egituratu. Beraz, UBPa aldatu baino zuzenagoa litzateke UBPa erabiltzen hasi behar garela esatea.

Parekatzeko momentua iritsi da

Dagoeneko badakigu iragarkian jarriko dugun informazioa ez duela hartzaileak jaso ahala irentsiko, ez direla pilulak, alegia.

Kart Pribram-en arabera, pertsona bakoitzak eredu neurotikoa batzuk ditu bere garunean, oroitzapenak, hain zuzen ere. Memoria iraunkorrean dauden aurreko ezagutza horiek ezinbestekoak dira gure iragarkian. Aurreko puntuan ere ikusi dugu ez dagoela ulergarritasun posiblerik erredundantzia maila bat gabe, erredundantziak ulergarritasuna ematen digula, hortik hasten baikara *eraikitzen*. Material erredundantea gero eta gehiago da publizitatean, jendeak zopa, auto, galtzerdi edo banku kontuez gero eta gehiago baitaki. Hortaz, lehen berria zenak ez digu balioko orain ideia berri moduan baina bai material erredundante bezala.

Bestalde, mezuaren bidez jasotzen ditugunak sistemara sarrerak dira. Dakigun bezala, sarrera horiek errepikatu eta ordenatu egiten dira EMMn.

Garunak, orduan, dagoeneko memorian gordeta dituen oroitzapenak bidaliko ditu sarrera horiekin konparatzeko, bat datozen ikusteko. Horri *feedforward* edo *aurreelikatzea* deitzen zaio.

Adibidez:

- Gizon batekin gurutzatu gara kalean. Bere aurpegia momentu batez EMMn geratu zaigu gordeta eta errepikatzen.
- Garunak, orduan, pertsona hori identifikatzeko ereduak bilatuko ditu memorian; gerturatzen ari den pertsona horrekin antzekotasunen bat duten oroitzapenak bilatuko ditu.
- Horrela, itxura horrekin bat etor daitekeen ELMko eredu neurotikoa bat aktibatu da.
- Sarrera eta ELMko eredu neurotikoa konparatu eta erantzuna iritsi zaigu: *Ez daukagu, ez dator bat lehendik memorizatuta genituen datuekin, ez genuen aurpegi hori ezagutzen!*

Sarrera eta oroitzapena ez datozenean bat, neuronen axoiak aktibatu egiten dira eta mezu berria garraiatu egiten da eredu neurotikoa berri bat sortuz. Lortu dugu, beraz, mezua fase berri batera pasatzea.

Bestalde, sarrera eta oroitzapena bat datozenean ez da oroitzapen berririk sortuko, eredu neurotikoa lehendik baitago garunean.

Gutxitan izaten da UBPa berria eta desberdina, produktua bera ere gutxitan izaten baita berria eta desberdina; askotan berari buruz esan beharrekoa aurrez konpetentziak esanda izaten du edo gure produktuak berak. Hortaz, fantasia eta misterioz bildu behar izaten da UBPa aurreko oroitzapenekin parekatzerakoan ez dadin bat etorri.

Energia

OTS (*opportunities to see*). Bi OTS bat baino hobea da eta bost bi baino hobea, interferentziak egoten direnez, hartzailleak gure mezua jasotzeko aukera gehiago izango baitugu horrela. Halere, *ikusteko aukerak* ez du *ikustea* esan nahi. Gerta daiteke gure mezuaren hartzailleak, Justizia Jauregiko langileak, mezua ireki duen unean bere arduradunaren enkargu bat jaso eta gero mezua ahaztea, edo SPAM bat dela pentsatu eta mezua ezabatzea.

Hori da justifikazio bakarra kanpaina guztietan iragarkia behin baino gehiagotan agertzeko, ez besterik. Iragarkiak OTS bat lortuta, iragarkia aldatu egin beharko litzateke bi arrazoi hauetako batengatik:

- a) Iragarkiak ez duelako behar besteko indarrik bere helburua lortzeko.
- b) Iragarkiak %100ean bete duelako bere helburua eta orduan material erredundante bilakatu delako, informazio baliorik ez duena. Esan beharrekoa ezaguna da dagoeneko.

Egia da badirela jendearen gustukoak diren iragarkiak eta behin eta berriz agertuta ere arretaz ikusten direnak. Baina hortik kanpaina baten indarra errepikapenetan oinarritzera jauzi izugarria dago. Errepikatze hutsak ez digu bermatuko mezua gogoratzea. Zerbait gehiago behar da. Schwartz: *Pertsona batek zure izena gogora dezan zerbait modu harrigarrian esan baduzu, gogoratu egingo du. Baina ez baduzu modu harrigarrian esan, iragarki askori gertatzen zaion moduan, orduan bai, hobe duzu 50 aldiz esatea.*

Reeves-ek esaten zuen kanpaina luze batek ehun kanpaina laburrek baino gehiago balio duela. Bai, baina tarteka iragarkiak berrituz, agortutako programak ordezkatzuz eta beti gauza bera baina modu berrian esanez.

Hartzaile parte-hartzaileak

Komunikazioan giltzatako bat parte-hartze aktiboa da. Gogora ditzagun hemen Herschell Gordon Lewis-en hitzak: *Ez ditugu ikusleak nahi, parte-hartzaileak nahi ditugu (...). Parte-hartzaileak emoziozko erreakzio batzuk izaten ditu, ikusle batek sekula ez dituenak biziko.*

Izan ere, parte hartuz bere egiten du hartzaileak bere esfortzuaren emaitza dena eta horrek ez dakar bakarrik emozioaren ordainsaria, oroitzapena hobeto gogoratzea ere badakar.

Hortaz, esaten da benetako ikasketa prozesuan emozioek hartzen dutela parte: kuriositateak eta jakin-minak, antsietateak eta zalantzak, tentsioak eta borrokak, agian etsipenak eta desesperazioak, eta bukatzeko, ikara eta arrakastaren poztasunak.

Eskemak

Gure memoria zoragarria dela dio Donald Normanek. Bere oinarritzko ezaugarrietako bat elementuen artean lotura edo erlazioak osatzeko duen gaitasuna da. Lotura horiei esker bizipenak erlazionatu, antzekotasunak topatu eta esperientzia horiek oinarri moduan hartuta orainaldia interpretatu dezakegu.

Psikologo modernoek *eskema* hitza erabiltzen dute pentsamenduaren fase hori azaltzeko. Zerbait ikasten saiatzen garenean ikasketa prozesua lehendik sortuta ditugun eskemak oinarri hartuta egiten da.

Jasotzen dugun informazio berriak lehendik erreferentziazko eskemarik ez badu, non oinarritu eta eraikitzen nondik hasi ez badaki, ezin izango dugu ulertu. Denoi gertatu izan

zaigu mezu berri bat jasotzean, demagun liburu tekniko bat, gauza berri gehiegi dituelako ez ulertzea. Halere, irakurtzen jarraitu ahala, erreferentzia-punturen bat topatu eta hortik aurrera datuak zentzua izaten has daitezke.

Eskemak bi modutan egituratu daitezke:

- **Asimilazioz:** datuak barneratzeko prozesu normala da, horretarako datu berriak eskema zaharretan sartuz.

- **Moldaeraz:** informazio berria ez denean ondo egokitzen lehendik dauden eskemetan. Orduan beharrezkoa da eskema berriak sortzea, horretarako lehendik dauden eskemak berregituratuz.

Eskemak apurtu dizkidazu esaten da batzuetan modu informalean. Beno, ba orain badakigu zein den esaldi horren atzean dagoen ideia, kontzientea izan ala ez. Norbaitek eskemak apurtu zaizkiola dioenean, jaso berri duen informazioa berria, interesgarria edo gogoangarria delako izango da.

Bukatzeko, gogora dezagun hemen G. Kantona-k egindako esperimentu bat: bi ikasle talderi paper batean apuntatuta bi zerrenda hauek eman zizkien:

2 9 3 3 3 6 4 4 0 4 3 4 7

5 8 1 2 1 1 5 1 9 2 2 2 6

Lehen taldekoei 3 minutuko tartea eman zien zenbaki guztiak gogoratzeko. Bigarren taldekoei ere 3 minutuko tartea eman zien, baina horiei zenbakien sekuentzia asmatzeko.

Hiru astera lehen taldekoek ez zuten ia ezer gogoratzen; bigarren taldean, berriz, gogoratzen zena %23 bueltan zegoen.

Esperimentu horretatik Kantonak ondorio hauek atera zituen:

- Ikastea aurkikuntza edo *deskubrimendu* prozesu bat bezala ulertu behar dela.
- Antolatu gabeko edukietan pertsonak beraiei antolaketa propioak ezartzen dituztela.
- Edukiak hobeto barneratzen direla antolatzeko eskatuta espresuki ikasteko eskatuta baino.

Ikusten dugunez, hartzailearen buruaren parte-hartze aktiboa bilatzen duten eta hartzailea mezua berregitera bultzatzen duten iragarkiak dira aholkatzen direnak.

Oroitzapenen mundua

Dagoeneko lortu dugu iragartzen dugun produktu edo zerbitzu horren mezua ehunka kontsumitzaile potentzialen garunetan memorizatzea. Lortu dugu *copy strategy*ak ezartzen zuen *kontsumitzailearentzat etekina* (*mintza saioetara etorritz gero, lehenago aterako duzu hizkuntza-eskakizuna*), hainbat eraldaketa, kodifikazio eta aldaketa izan ondoren, kontsumitzaile potentzial horien memorietan kopiatuta egotea.

Orain, xede dugun langile horrek, eskaintzen zaizkion ikastaro guztien artean (mintza saioak, yoga, sukaldaritza...) mintza saioetan izena ematea nahiko genuke guk.

Horretarako, *mintza saioak* entzunda memorian grabatuta utzi dugun UBPa gogoratu beharko luke; yoga, sukaldaritza eta beste ikastaroek ere bakoitzak bere UBPa izango du, nola ez (komunikazio eraginkorra egin badute bai behintzat). Hor irabazi behar dugu guk borroka, hartzaileak gure UBPa memoriatik erreuperatu ez ezik, UBPa hori besteena baino hobea izan behar da.

Bestalde, Donald Normanen esanetan, erreuperaziorako aukera bakarra informazioa edukiaren arabera antolatuta izatea da, eta UBPa bere esanahitik urruntzen ez den egitura batean egotea. Ez dadila gertatu, ikastaroen artean aukeratu behar duen unean, mintza saioak entzunda bere UBPa gogoratu beharrean mintza saioekin zerikusirik ez duen argazki edo txiste bat gogoratzea.

Donna Chmieliewski eta John Brockway-en esanetan, berriz, *zerbait gogoratzen dugunean, oroitzapena gordeta dugunaren erreprodukzioa dela uste badugu ere, benetan berreraikitzea edo zati desberdinak elkartuta osatutako laburpen bat baino ez da.*

Bukatzeko, Gestalt-eko eskolako psikologoei egingo diegu erreferentzia. Horien ustez, memorian gordetako oroitzapena aldatu egiten da denboraren poderioz sinpleago eta simetrikoago bihurtuz. Aipu horrek, bestalde, epe luzeko memoriaren beste ezaugarri bat gogorarazten digu: mugikortasuna. Izan ere, itemak memorian grabatuta mugiezina bazirudien ere, denboran zehar prozesatzen jarraitzeko gaitasuna duela erakusten digu.

Fenomeno horri gaztelaniaz *pregnancia* deitzen zaio, eta oroitzapenak eta pertzepzioak denborarekin forma argi eta sinpleagoak osatuz eraldatzen doazela azaltzen du. Garunak progresiboki murriztu egiten du mezua eta joera oroitzapenak gero eta antolatuago eta koherenteago bilakatzea da.

4. ONDORIOAK

Sakontze-egitasmoaren lehen ondorio nagusia euskararen normalizazioak, orain arte, komunikazio hutsune nabarmenak izan dituela izan da; mezu dispertsio handia dago, mezu horietako asko elkarrekin kontraesanean daude eta ez dago komunikazio estrategia eraginkor, erakargarri eta bateraturik. Ez gintuzke harritu beharko, beraz, herritarra galduta ibiltzeak edo euskaltzalea etsita egoteak.

Are gehiago, komunikazio helburu eta estrategietan hutsuneak ez ezik, okerragoa iruditzen zaigu euskarak berak ere helburu eta estrategia hutsuneak izatea. Hortaz, gure ustez, lehen zeregina norabidea definitzea izan beharko litzateke; hemendik 25 urtera euskara ze egoeratan ikusi nahiko genukeen irudikatu, adostu eta hori lortzera bideratu beharko genituzke gure indarrak. Norabide horretan, ekimen interesgarria iruditu zaigu Eusko Jaurlaritzak duela gutxi arte martxan izan duen *Euskara 21* ekimena. Lortutako adostasunak eta sortu dituen espektatibak horretarako bidea ematen dutela uste dugu.

Behin helburu horiek adostuta, asmo handiegikoak ala pobreak iruditu, denok bat egin beharko genuke helburu horiekin. Lehen esan dugun bezala, herritarrari mezu gehiegi iristen zaizkio eta egiten dugun eta komunikatzen dugun oro helburu orokor horiekin koherentzia egotea eta helburu orokor horiek indartzeko baliagarria izatea komeni zaigu. Beste norabide batean emandako edozein mezu, mesede baino kalte gehiago egin diezaguke.

Halaber, helburuen komunikazioan, kontuan izan beharko genuke herritar askok kontu hauetaz duen ezagutza oso txikia dela. Euskalduna ala erdalduna izan, herritar gehienentzat euskara ez da bere eguneroko kezka nagusi. Hortaz, euskararentzat adostu ahal ditugun helburu orokor horien komunikazioa egokitu egin beharko genuke hartzailearen arabera; txostenean ere aipatu dugu ez dagoela soberan oinarritzko edo zentzuzkoenak diren helburu horiek behin eta berriz aipatzea, sor daitezkeen beldurrak eta gaizki-ulertuak ekiditeko besterik ez bada.

Xede-taldeari dagokionez, egia da Euskal Herrian era guztietako euskal herritarrak ditugula, eta zentzu horretan, administrazioko errealitatea gizartearen isla da. Beraz, herritarrei zuzendutako komunikazio estrategia eraginkorrak administrazioko langileentzat ere eraginkorrak izango dira neurri handi batean. Halere, administrazioko langileek badituzte gainerako herritarrengandik bereizten dituzten hainbat ezaugarri: gizartean baino euskara ezagutza handiagoa, gizartean baino *antipatiko* gehiago, instituzioaren eta kokatuta dagoen ingurunearen artean desoreka soziolinguistikoa... Gure komunikazio estrategiak definitzerakoan berezitasun horiek aintzat hartzea komeni zaigu.

Motibatzaileei dagokionez, sarreran ere aipatu dugu zerk eraman gintuen sakontze-egitasmorako gai hau aukeratzera, administrazioan euskara ikastearen eta hizkuntza-eskakizunen artean dagoen lotura estuak, hain zuzen ere.

Etorkizun hurbilean ez dugu uste gauzak asko aldatuko direnik eta lasai asko esan genezake hizkuntza-eskakizuna eskuratzea eta beraz, lan hobea lortzea izango direla, aurrerantzean ere, euskara ikasteko arrazoi nagusiak.

Halere, hezkuntza-sistemak bere bidea egiten jarraituz gero, gero eta gehiago izango dira administrazioan sartuko diren euskara tituludunak eta beraz, hizkuntza-eskakizuna ez dugu uste lehiarako faktore erabakigarria izango denik. Hortaz, etorkizunean, euskaldun izango diren administrazioko langile horiek euskara erabiltzera nola animatu izango da gure erronka.

Horretarako, hainbat motibatzaile posible zerrendatu ditugu, beste asko ere egongo dira ziurrenik, eta euskarara erakarri behar ditugun horiek zein motibatzaileekin seduzitu

izango da pentsatu beharrekoa. Iñigo Fernandezek iritziz, motibatzaile indibidualistak kolektiboak baino eraginkorragoak izaten dira, bizi dugun gizarte indibidualistaren isla.

Mezu nagusien atalean, euskararen eta euskalgintzaren gainean erabiltzen ditugun hainbat mezuri buelta eman nahi izan diogu. Etengabeko errebindikazioan ibiltzeak, euskararentzat etorkizun beltza irudikatzeak, beti egindakoak baino egin ez direnak azpimarratzeak... ez dira, gure ustez, euskara saltzeko mezurik eraginkorrenak; ezkortasunak ez du erakargarritasunik. Baikortasun mezuak zabaldu behar ditugu, eta horien artean gure ustez aipagarrienak direnak jasotzen saiatu gara.

Bigarren atalak iragarkiak egiteko urratsak edo gomendioak jasotzea zuen helburu. Euskara sustatzeko komunikazio estrategi orokorrean esan dugun bezala, garrantzitsua iruditzen zaigu xede-taldea ondo definituta izatea eta ondo ezagutzea. Iragarkiaren hartzaileak ze desio eta behar dituen identifikatu ostean, idealena horiei erantzuteko produktuak sortzea bada ere, gehienetan gure egitekoa aurretik sortutako produktu bat *saltzea* izaten da; hortaz, gure produktuaren etekinak zein diren jakin eta horietatik eraginkorrena aukeratu beharko dugu.

Etekin, argudio edo motibatzaile nagusi hori aukeratu ostean, horren gainean *eraiki* behar dugu gure iragarkia. Etekinak hiru baldintza bete behar ditu: bakarra, aurretik konpetentziak erabili gabea eta indartsua izan behar da.

Gainerako argudioak edo bestelako datu eta ikerketak argudio nagusi hori sinesgarri egiteko eta mezua indartzeko erabil ditzakegu. Halere, ez genituzke, inolaz ere, argudio nagusiaren mailan jarri behar, hartzailea bakarrik argudio edo etekin bat gogoratzeko gai baita, eta informazio asko sartzen ahalegintzeak guri interesatzen zaigun etekina ezkutatzea edo ahultzea eragin baitezake.

Halaber, iragarki bat egiterakoan oso kontuan izan beharko ditugu beste hainbat kontu. Esaterako, oso mezu gutxi pasatzen du zentzumenen lehen galbahea eta epe motzeko memoriak informazio gutxi eta denbora laburrean gordetzen du; beraz, informazio pila bat eta dena batera ematen saiatzeak mesede baino kalte gehiago egin diezaguke.

Komunikazio kanalarik dagokionez, aukeratutako kanal horrek mezuari eransten dion informazio gehigarria oso kontuan hartzekoa da, bat ala beste aukeratzeak eragina izango baitu hartzaileak gure mezuari emango dion garrantzian.

Bukatzeko, iragarki baten arrakastan erabakigarriak izan daitezkeen beste pare bat ezaugarri aipatuko ditugu. Batetik, arreta erakartzeko erabiltzen dugun elementua. Behar-beharrezko elementua bada ere, *bit* asko kontsumitzen ditu, eta lehen esan dugun bezala, oso eskuzabala ez den epe motzeko memorian oso kontuan hartu beharrekoa da hori. Gainera, epe luzeko memorian gordetzeko aukera asko izango dituenek, etekina eta arreta erakarriko duena elementu berbera izatea gomendatzen da.

Bestetik, iragarki batean datu erredundanteak (aurretik memorian gordeta daudenak) eta informazioa (berria dena) egon behar dira. Izan ere, ehuneko ehunetan erredundante denak ez dio ezer berririk eransten hartzaileak lehendik dakienari, eta hortaz, ezingo du hartzailearen portaeran eragin; ehuneko ehunetan informazioa dena, berriz, ulertezina izango da, memorizatzea lehendik ditugun eskemen gainean egiten baita.

ERANSKINA: EUSKARAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

A) DATOZEN URTEETAKO HIZKUNTZA-POLITIKAREN OINARRIAK

- Etorkizuneko Euskal Herria: gaitasun desberdineko euskal herritar elebidun/elebitzez osatua.

Ez genuke nahi euskal herritar elebakarrik, ez euskaldun elebakar ez erdaldun elebakarrik. Hori da gure iritziz ideala. Kontrakoa dioen euskaldunari galdetu beharko genioke ea berak nahi duen euskaldun elebakar izan... Ze izen du besteentzat nahi izatea norberarentzat nahi ez denak?

Euskaldunak euskaldun izaten jarraitu nahi baldin badu, ez du elebidun izan beste aukerarik; gainera, ondo kudeatzen asmatuz gero, elebitasunak ere baditu bere alde onak.

Iritzi berekoa da Mikel Zalbide ere: *Ahaztu dezagun euskara hutsezko Euskal Herriaren egitasmoa, hain bihotzean iltzaturik daramaguna, eta zentra gaitezen euskaldunen luze-zabaleko elebitasun egonkorra garantiza dezakeen marko soziolinguistiko egokiena, ongien egokitzen zaigun trajea, bilatzen eta aplikatzen...*

Euskara 21en irakurri ahal izan dugunez, 20-25 urte barru 50 urtetik beherako herritar guztiak euskaldunak edo, gutxienez, euskaldun pasiboak izatea da aurreikuspena; baina ez maila berean denak eta ez toki guztietan era homogeneoan banatuta, hau da, ez da EAEko lurralde guztietan hiztun, erabiltzaile eta gaitasun maila bera lortuko. Elebitasun asimetriko baterantz goaz.

Garrantzitsua iruditzen zaigu azken puntu hori argi izatea, euskara gaitasun maila desberdinarena alegia. Helburutzat euskal herritar denek bi hizkuntzetan gaitasun berbera, gaitasun osoa (ibilbide kulturala + ibilbide naturala) lortuko dutela jartzea ez zaigu oso errealista iruditzen. Xamarrek *Orekan* liburuan azaltzen duenez, *elebitasun perfektu eta zail hori, hala ere, oso lorgarritzat aurkezten da zernahi hizkuntzaren irakaskuntzan. Zaila bada pertsona batengan, are zailagoa da (ezinezkoa, egia esateko), gizarte oso batentzat, zenbait politikok "gizarte elebidunaz" hitz egiten dutenean kontrakoa sinestarazi nahi badute ere.*

Eta beste paragrafo batean hori zergatik uste duen azaltzen du: *Hiztun osoaren jakintza mantentzeak erabilera maila aski handia eskatzen du halabeharrez, bestela ezagutza galtzen hasten da, ahaztu egiten da; eta hiztunak mintzo bat egiten duen bitartean, ez du bigarrena erabiltzen. Elebidunak izan gaitezke, baina, momentuz, klonatu gabeak gara. Bat egitea bigarrenaren erabileraren kaltetan doa ezinbestez, batez ere lurraldea "biena" dela kontsideratzen denean. Horregatik, bigarren hizkuntzaren ezagutza maila hori mantentzen duenak maiz lanean beharrezkoa duelako da, erabilera aski bat segurtatuta baitu horrela: hizkuntza irakasleak, itzultzaileak, interpretariak, kazetariak...*

- Diglosiazko elebitasun egonkorra behar dugu.

Gizarte batean hainbat jardun-esparru daude (familia eta etxebizitza, hurbileko auzoa, lan-mundua, eskola...) eta jardun-esparru bakoitzean hainbat harreman-sare (adibidez *familia eta etxebizitza* jardun-esparruaren barruan senar-emazteek beraien artean ze hizkuntzatan hitz egiten duten, eta berdin gurasoek haurrekin, anai-arrebek...).

Bi hizkuntza ofizial dituen lurraldean bizi izateak ez du esan nahi jardun-esparru eta harreman-sare horietan guztietan dena bi aldiz egin behar dugunik; txosten den-denak euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko bagenu edo kalean agurtzen dugun bakoitzean *Egun on, zer moduz? Buenos días, ¿qué tal?* esan beharko bagenu zoratu egingo ginateke. Gauza batzuk bai, bi hizkuntzatan egin beharko dira, baina beste batzuk euskaraz ala gaztelaniaz egin aukeratu beharko dugu nahitaez; horrela, funtzio edo zeregin batzuk euskaraz egin ahalko dira, eta beste batzuk gaztelania hutsez egingo direla onartu beharko dugu.

Hori bera uste du Mikel Zalbidek diglosia behar dugula dioenean; diglosiazko elebitasun egonkorra, zehatzagoak izanda.

Diglosia ia beti zentzu okerrarekin erabiltzen den terminoa da eta, gainera, euskararen gaitz guztiak berari leporatzen zaizkio. Diglosiak hiru ezaugarri ditu: talde-izaera (ez norbanakoa), iraupen luzea (gutxienez hiru belaunaldiko egonkortasuna) eta espazio soziofuntzionalaren *konpartimentazioa*; horiek betetzen ez badira ez dugu diglosiarik. Hortaz, eta zoritxarrez, euskaldunak ez gara diglosian bizi.

Diglosia, beraz, gaixotasuna dela esan ordez ia-ia sendabidea dela esan beharko genuke. Berrito ere *Euskara 21* txostenera jo dugu, eta han ere gauza bera irakurri dugu *gaixoaren* tratamenduz: *Diglosiak ez du biziraupena bermatzen, baina diglosiarik gabe ez dago biziraupenik*.

Halere, aurreko puntuan aipatu dugun etorkizuneko elebitasun asimetrikoarekin lotuta, funtzio banaketa ere asimetrikoa izango da, EAEko lurralde bakoitzean dagoen errealtate soziolinguistikoaren arabera, alegia. Goierriko herri euskaldun batean euskarak betetzen duen funtzio bat (esaterako, eskolako guraso taldearen barne funtzionamendua) gaztelaniak beteko du Enkarterrietako herri txiki batean.

• Indar mugatuak ditugu: errealistak izan eta jardun-esparruak lehenetsi

Ondo dago Euskal Herri osoan jardun-esparru den-denetan euskaraz egin nahi izatea eta Unibertsitateko karrera bukaerako proiektua, laneko txostenak, etxearen kontratua, garbigailuaren jarraibideak... euskaraz eduki nahi izatea, baina izan gaitezen errealistak, gure indarrak mugatuak dira eta ez ditzagun errealitatetik urrun dauden helburuetan alferrik galdu.

Euskararentzat gero eta funtzio gehiago irabaztea da helburua, baina progresibotasuna kontuan izanik, dena goizetik gauera egitea ezinezkoa izateaz gain, kontrako jarrerak biderkatzea ekarriko bailuke ziurrenik.

Kontuan izan dezagun zein den euskararen gaur egungo egoera: zenbat garen, zenbat profesional dauden euskaraz lan egiteko trebatuta... eta horren arabera egin ditzagun planak. Funtzio denak euskaraz egitea ez bada posible, lehenetsi ditzagun batzuk. Zeintzuk izan daitezkeen erabakitzeke Fishmanek galdera hauek egitea proposatzen du:

- *Zein funtziok dute oinarri-oinarrizko balore-indar kulturala, euskararen belaunez belauneko transmisioa eta erabilera (belaunaldi berrietan) garantizatzeko?*
- *Garenak garelarik eta dugun indarra dugularik zein funtzio ditugu egingarri, bideragarri, eskuragarri?*

Hortaz, neurri egingarrietatik aukera ditzagun euskararen belaunez belauneko transmisioa sendoen garantiza dezaketela iruditzen zaizkigunak.

Funtzio horietako asko, ziurrenik, etxean, lagunartean, auzoan eta herrian ia egunero edo maiz behintzat egiten ditugunak izango dira.

- Euskarak arnasmuneak behar ditu euskaldunok euskaldunokin jarduteko

Euskara indarberritzea nahi baldin badugu arnasmuneak behar ditugula dio Fishmanek, hau da, euskara nagusi den lekuak. Euskarak arnasa har dezan arnasmuneak zaindu, sortu eta indartu behar ditugu.

Beste modu batera azalduta, arnasmune den leku batean (demagun UEMAko kide den Aduna herrian) funtzio batzuk erdaraz egin ahalko dira, baina beste funtzio asko, egunerokotasunean oinarritzkoenak direnetatik hasita, nahitaez euskara hutsez egin beharko dira.

Horixe da Fishmanek planteatzen duena: *Euskaldunok euskaldunokin euskaraz jardutea funtzio jakinetan (ahalik eta gehienetan), nahiz eta erdaldunekin, oro har (bai eta euskaldunekin ere beste zenbait funtziotan, hala suertatzen denean) erdaraz jardun.*

Saia gaitzen auzo eta herri euskaldunak euskaldun mantentzen, eta horri esker normala izango da hurrengo belaunaldientzat ere euskaraz bizitzea. Euskarazko harreman-sareak mantentzean eta berriak sortzean dago gakoa Fishmanen iritziz.

B) ADMINISTRAZIOAREN EGITEKOA HIZKUNTZA-POLITIKA BERRIAREN BAITAN

Goian euskara normalizatzeko oinarri nagusiak aipatu ditugu: elebitasuna/eleaniztasuna, jardun-esparru batzuk lehenestea, arnasmuneak mantentzea edo sortzea... Eta administrazio mailara jaitsiz gero zer? Zein izan beharko litzateke erakunde publiko batean euskararen helburua?

- Ideala langile denak elebidunak/eleanitzak izatea litzateke

Berdin zaigu udal bat, Foru Aldundia edo Jauralaritza den eta Gasteizen, Irunen edo Zeanurin dagoen, edozein administrazioetan egoera ideala langile denak elebidunak edo eleanitzak izatea litzateke.

Beste kontu bat da administrazio bakoitzak ze baliabide jartzen dituen eta zeri ematen dion lehenetasuna; ba al dugu langile denak barnetegira bidaltzeko diru-partidarik ala lanpostu jakin batzuetakoak lehenetsi behar dira? Kontratazioetan jarriko ditugu indarrak ala daudenak euskalduntzen?... Baina administrazio bakoitzaren hizkuntza-politika bata ala beste izan, eztaba daezina dena da langile elebidunak edo eleanitzak izatea elebakarrak izatea baino hobea dela.

Hortaz, komeniko litzateke lanpostu estrategikoetan dabilzanekin ahalegin berezia egiteaz gain, euskara ikasi nahi duen beste edozeinek ere erraztasunak izatea.

Epe ertain-luzeko perspektibarekin begiratuz gero, berriz, etorkizuneko gizartea elebiduna izango dela aipatu dugu lehen, eta, beraz, gizarte horren parte den administrazioa langileak ere elebidunak izango dira nahitaez; hori bai, administrazioa kokatuta dagoen tokiaren arabera, euskara-gaitasun desberdina izango dute langileak.

Administrazioan gero eta langile elebidun gehiago, orduan eta hizkuntza-eskakizunen garrantzia edo erabakigarritasuna txikiagoa. Administrazioa langileen jarrera edo barne motibazioan garrantzi handia duten eta hainbeste zeresan sortzen dituzten hizkuntza-eskakizunak behin-behineko neurri gisa ikusi beharko genituzke, beraz.

- Administrazioko funtzioetan ere euskara-erdara konpartimentazioa

EAEko administrazioan, beste edozein jardun-esparrutan bezala (eskola, familia...) euskarak eta gaztelaniak funtzio banaketa izan behar dute, funtzioen osagarritasuna edo *konpartimentazioa* izango da helburua.

Gauza batzuk bi hizkuntzatan egon beharko dira legez (errotulazioa, buletina...) baina beste batzuk euskaraz ala gaztelaniaz egingo diren aukeratu egin beharko da. Bi hizkuntzatan egon behar diren horietan ere oso desberdina izango da euskaraz sortu eta gaztelaniara itzuli ala alderantziz, gaztelaniaz sortu eta euskarara itzuli.

- Jardun-esparruak lehenetsi: egingarri eta ohikoenetatik hasi

Administrazioa kokatuta dagoen lekua edozein dela ere, gure helburua euskarak ahalik eta funtzio gehien eta garrantzitsuenak betetzea izango da, hau da, funtzio egingarrienak eta posible denean belaunez belauneko transmisioa hobekien bermatzen dutenak aukeratzea komeni zaigu administrazioan ere.

Demagun, urtean behin Ministeriotik langileei bidaltzen zaien zirkular bat erdara hutsez dagoela. Ekintza komunikatibo hori etorkizunean euskaraz lortzen saiatu beharko al ginateke? Egingarria eta erraza bada bai, baina ez dago hor euskararen geroaren gakoa eta horretan indarrak xahutu baino agian hobe genuke indar horiek beste borroka batzuetarako gordetzea.

- Asimetria administrazioaren lan-hizkuntzan

Elebitasunaz esan dugunaren haritik, administrazio bakoitzaren lan-hizkuntzari dagokionez ere, errealitatea ez da simetrikoa izango EAEko lurralde guztietan.

Gure ustez, arnagune diren lekuetan, euskararen ezagutza handia den administrazioetan, demagun Adunako Udalean, udal barneko lan-hizkuntza euskara izango da, hau da, euskaraz sortuko dute eta beharrezko denean gaztelaniara itzuli.

Aitzitik, euskararen ezagutza baxua den administrazio batean, demagun Gasteizko Justizia Jauregian, ez dugu euskaraz funtzionatzen duen administrazio-atal asko topatuko eta zaila izango da epe motzean egoera asko aldatzea ere. Hortaz, Justizia Jauregi barruan topatu beharko ditugu euskararentzat arnaguneak: administrazio-atalen bat(zuk), bulegoren bat(zuk), epaitegiaren bat(zuk)...

- Asimetria administrazioaren zerbitzu-hizkuntzan

Euskara 21eko txostenera jo dugu berriro ere eta errealitate soziolinguistikoaren arabera bi kasu kontrajarri hauek irakurri ahal izan ditugu bertan:

Adibidez, elebidun kopuru urriko eskualde batean euskal hiztun batek arazoak izan ditzake tokian tokiko administrazioaren aurrean hainbat gestio euskaraz egiterakoan, bai orain, bai, seguruenera, 20-25 urte barru ere, herritarrak egin nahi duen gestioak jendaurreko harrera-lerrotik haragoko esku hartzea eskatzen badu tokian tokiko administrazioaren aldetik bederen.

Era berean, baina guztiz alderantzizko norabidean, euskararen arnagune batean bizi den elebatar batek berriaz eskatu behar izan lezake harrera egitea eta izapidetaren berri gaztelaniaz ematea, dagokion administrazio-gunearen ohiko lan- eta zerbitzu-hizkuntza euskara baldin bada, eta kasuistika hau areagotu egingo da heldu diren 20-25 urteen buruan.

Ondorioz, ez dira batean eta bestean hizkuntza politika bera diseinatuko eta ezta hizkuntza irizpide berberak aplikatuko ere. Halere, administrazioak, edozein dela ere eta kokatua dagoen lekua edozein dela ere, herritarrak nahi duen hizkuntzan artatzeko gaitasuna izan beharko du.

Gainera, herritarrari erraztasunak eman beharko zaizkio bere aukerak ez dezan errebelamendu itxura izan; adibidez, epaitegi batera joan eta agurra erdaraz egiten digun funtzionarioari nork esaten dio, errespetuz bada ere, euskaraz artatua izan nahi duela? Halako egoeretan ohikoa da euskaldun eragileek ere sumisio linguistikoan erortzea.

Halaber, aukera horrek ez lioke euskaldunari, inolaz ere, gainkostu edo denbora luzapenik eragin beharko.

BIBLIOGRAFIA

- Atxaga, Bernardo (2003): *Soinujolearen semea*. Pamiela.
- Atxaga, Bernardo (1999ko azaroan Donostian emandako hitzaldia): *Patetikoak, sinpatikoak eta antipatikoak*. 2006ko uztailaren 25ean berreskuratua, <http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hogeimende/sarrera> (Mari Jose Olaziregiren azalpena, artikulu amaieran).
- Atxaga, Bernardo (2006): *Andimaren liburu bat eskuan* artikulua Atxagaren blogean. <http://www.atxaga.org/testuak-textos/andimaren-liburu-bat-eskuan>
- Etxegoien, Fermin (2004): *Neurona eta zeurona*. Pamiela.
- Euskara 21. Eusko Jaurlaritza. http://blog.euskara21.euskadi.net/?lang_pref=eu
- Euskara 21 (2008-IV-29): *Oinarrizko Txostena*. Eusko Jaurlaritza. http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Oinarrizko_Txostena.pdf
- Euskara 21 (2009ko urtarrila): *Itun Berritu Baterantz*. Eusko Jaurlaritza. <http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Itun%20berritu%20baterantz.pdf>
- Fernandez, Iñigo (2006-IV-4): *Euskara sustatzeko sloganak 2005. Euskara eta Publizitatea* bloga. <http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/archives/2006/04/P2.html>
- Fernandez, Iñigo: *Euskara eta Publizitatea* bloga. <http://www.sweetcreeps.com/euskaraz2/index.php>
- Fernandez, Luistxo (2008-X-9 eta 10): *Euskara interneten: argi-ilunak* hitzaldia *Hizkuntza Gutxituen Erronkak Globalizazio Garaian* kongresuan. <http://www.hizkuntzagutxituak.net/eus/hitzaldiak/luistxo-eus.html>
- Garzia, Joxerra (2008): *Jendaurrean hizlari*. Alberdania.
- Hernandez, J.M. (2000): *Gaztetxoen hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak*.
- HIZNET; Andoni Barreña eta Patxi Juaristi (2008): *Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan*.
- HIZNET; Lionel Joly (2008): *Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak*.
- HIZNET; Mikel Zalbide eta Xabier Erize (2008): *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*.
- HIZNET; Olatz Olaso (2008): *Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologia*.
- HIZNET; Pablo Suberbiola (2008): *Hizkuntza garapen iraunkor baterantz*.
- HIZNET; Iñaki Arruti (2008): *Hizkuntza plangintza udalerrri-mailan*.
- HIZNET; Jose Mari Arakama (2008): *Euskararen erabilera planak Eusko Jaurlaritzan*.
- HIZNET; Jose Inazio Basterretxea (2009): *Hedabideak eleaniztasunean. Euskararen kasua*.
- HIZNET; Asier Arrieta eta Iñigo Fernandez (2009): *Komunikazioa euskara sustatzeko*.
- HIZNET; Kike Amonarriz (2009): *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea*.

- HIZNET; Nekane Jausoro (2009): *Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*.
- Lertxundi, Anjel (2008). *Euskara 21eko Oinarrizko Txostenari egindako ekarpena*: http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/file/Erdarazko%20definitiboak/anjel-lertxundi_es.pdf
- Maia, Jon (2005): *Riomundo*. Txalaparta.
- Moliné, Marçal (2003): *La Comunicación Activa*. Ediciones Deusto.
- Sarasua, Jon (2004-XI-19): *Euskararen arazoa existentziala da*. 2006ko uztailaren 25ean berreskuratua, http://www.erabili.com/zer_berri/galdezka/1082164520
- Torrealдай, Joan Mari (2000): *El Libro Negro del Euskera*. Tarttalo.
- Txillardegі, Jose Luis Alvarez Enparantza (2007-10-31): *Salaketa*. Irutxuloko Hitza. <http://egia.hitza.info/paperekoa/2007-10-31/p00002002/Salaketa.htm>
- Varennes, Fernand de (2008-X-9 eta 10): *Gehiago, gutxirentzako tokian: Hizkuntza gutxituen eskubideak Globalizazio Garaian* hitzaldia *Hizkuntza Gutxituen Erronkak Globalizazio Garaian* kongresuan. http://www.hizkuntzagutxituak.net/descargas/ponencias/Fernand_de_Varennes-eus.ppt (Jatorrizko iturria: <http://web.nickshanks.com/languages/english/global-ft.html>)
- Xamar, Juan Carlos Etxegoien (2006): *Euskara Jendea*. Pamiela.
- Xamar, Juan Carlos Etxegoien (2001): *Orekan*. Pamiela.
- Zabala, Josune (2009-VII-5). *ARGIA* aldizkaria (2.191. alea).